

3,50 euro
AEKren aldizkaria
2023ko azaroa

aiizu!

481

Etxepare
Institutua
hitz gutxitan

Sanprubusa:
kafea
autobusean

Altxa burua
sakelakotik,
gazte!

Seaskaren
lizeoa,
barnetegi



**AMAGOIA MUJIKA
TOLARETXIPI
ZUZENDARI BERRIA(N)**



Lezoko Unibertsitateko Udala

Informa zaitez
zure herriko euskara ikasteko
beka aukeraz!

LEZON euskara ikasteak

ez du preziorik!



EUSKARA
ZERBITZUA

☎ 943 513 476
euskara@lezo.eus
www.lezo.eus



Eñaut MITXELENA



12
Jon Zabala
arin-arin

M. EGIMENDI



20

Etxepare Institutua
labur-labur

23

Altxa Burua! ekimena,
indarra hartzen

27

Gurpil gaineko
taberna

30

Zelan euskaraz?
Maialen R. Barcena

31

Lizeoan, ikasi eta bizi



20



30

FREEPIK



23



31



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK)
DIRUZ LAGUNDUA

Koordinazioa: Eñaut Mitxelena. **Erredakzioa:** M. Egimendi, Eñaut Mitxelena.

Kolaborazioak: Joxe Rojas, Gotzon Herrosilla, Aitor Fdez. de Martikorena, Jon Rejado, Inhar Iraizotz, Onintza Enbeita, Alessandro Ruta, Andoni Urbistondo, Maider del Olmo, Marcos Tedin.

Hizkuntz arduraduna: Usua Alberdi. **Argazkilariak:** Amaia Zabalo, Iban Aginaga, Mikel Martinez de Trespuentes. **Azaleko argazkia:** Amaia Zabalo. **Diseinua eta maketazioa:** Eba Arratibel. **Komikiak:** Eñaut Aiertzagueno Bravo, Zaldi Eroa.

Publizitatea: Xabier Garmendia • Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA •
Tel. 607 596 112 • aizupubli@aek.eus.

Egoitza nagusia: Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 638 660 •
aizu@aek.eus.

Administrazioa eta harpidetzak: Juanma Etxebeste • Iztueta kalea 3, behea •
20001 DONOSTIA • Tel. 607 532 846 • juanma-e@aek.eus.

Inprimaketa: Antza.

L. G. BI-242881
ISS 1132-1709

AIZU! ez du nahitaez bat egiten kolaboratzaileen iritziekin. Erantzukizuna egileena da.



Denok bat

Maiatzean iragarri zuen Euskalgintzaren Kontseiluak hitzordua. Euskara azkenaldian jasaten ari den oldarraldi judizialaren aurrean, azaroaren 4an manifestazioa Bilbon. Euskararen kontra epaitegietatik iritsitako **ebazpen**¹ sortan bazegoen eta zer aukeratu: Erandioko Udalekoa, Uliazpi Fundazioari buruzkoa, Irungo udaltzainena... Maiatzetik, oldarraldiak etenik ez. Alderantziz, auzitegietatik datozen erabakien menua handitu egin baita. Besteak beste, uztailean Espainiako Auzitegi Konstituzionalak EAeko Udal Le-

gearen aurka emandakoa, non udalerrri euskaldunei euskara hutsean jarduteko bideak mugatzen zizkien. Argi dago: euskararen kontrako gosea, ezin **asea**². Urrian epai gehiago iritsi dira, den-denak euskara normalizatzeko arauen kontra. **Atxikimendu**³ ugari jaso ditu dagoeneko euskararen alde azken urteetako manifestaziorik jendetsuena izango denak. *Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat* izango du leloa. Izan daitezela milaka lagun bat eginda adostasun sozialaren erakusgarri.

i



ARANTXA URRETABIZKAIA

Idazle donostiarrak eskuratu du Euskadi Literatura saria, *Azken etxea* nobelagatik. Epaimahaiak idazlearen obrak "*eskaintzen dituen ezaugarri formal eta hautu estetiko bereziak*" azpimarratu ditu.

ze



FREDERICK WISEMAN

Zinemagile estatubatuarrek azaroaren 10ean jasoko du Zinebiko Ohorezko Mikeldi saria, "*dokumental zinematografikotzat hartzen duguna definitzen egindako ekarpen erabakigarriagatik*."

na



MARTIN ARAMENDI

Ataungo alkatea izango da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria datozen lau urteotan. 1991n sortua, 101 udalerrri biltzen ditu UEMAK gaur egun, 305.000 biztanle inguru.

k



IRATI ICIAR

Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari izendatu dute, Kike Amonarrizren orde. Oñatiarrak ibilbide luzea du euskalgintzan: Gasteizko GEU elkarteko lehendakari, Udako Euskal Unibertsitateko koordinatzaile...



Zenbakiak

Azaroaren 30ean, grebara joango gara emakume asko. Pentsatzen dut lanpostuen arabera egingo dutela grebaren zenbaketa, eta ez dutela benetako eragina esan nahi izango, baina benetan uzten badiogu egin behar duguna egiteari, mundua gaizki egongo da egun bakarrean baino ez bada ere. Grebarako ditugun arrazoiak ulertzen ez dituenak egun horretan aldatu gabe geldituko diren **fardelak**⁴ zenbatu beharko lituzke. Eta bildu gabe geldituko diren **hauts**⁵ pilotak. Eta prestatu barik utziko ditugun janari kiloak. Eta plantxatu gabe pilotuko diren alkandorak. Eta, eskura eman gabe, dauden lekuan utziko diren hamaiketako poltsak. Eta prestatu gabe joango diren igerilekurako maletak. Eta, inork bultzatu gabe, etxetik aterako ez diren aulki gurpildunak. Eta eskolara inork zaindu gabe iritsiko diren autobusetako umeak. Eta garbitu gabe iraun beharko duten ipurdiak. Eta parkerako bidean inork lagunduko ez dituen edadetuak. Eta ospita-

leetan garbitasun zorrotzik izango ez duten korridoreak. Eta zenbatu beharko lirateke egun horretan zenbat telebista izar aterako diren ondo makillatu gabe. Eta zenbat erredakziotan egongo diren hutsuneak langileen artean, baina ez hainbeste zuzendaritzetan. Eta zenbat antzezlan geldituko diren taularatu gabe. Eta zenbat min sendatu gabe, jendeak ez duelako izango nork entzun. Zenbat pertsona geldituko diren zaintzarik gabe, nahiz eta espero baino lanpostu gutxiago hustu.

Gauza asko aldatu dira mende batean, baina emakumeok munduari egiten diogun ekarpenak hortxe jarraitzen du. Gugatik ez balitz, sistemak ezingo luke iraun. Maitasunaren ize-nean egiten dugun lan horregatik guztiagatik ez balitz, ia dena eroriko litzateke. Eta, hala ere, hil egiten gaituzte, bortxatu, zapaldu eta haurrak bagina bezala tratatu. Egundakarrean ezingo dugu dena lehertu, baina gure jarrerak erakusteko garaia da.

ESANAK

“Errazagoa da etorkinei euskararen aldeko mezuak helaraztea, hemen betidanik bizi izanagatik euskararekiko interesik izan ez dutenei baino”

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA,
SOZIOLINGUISTA

“Jendeak gure abesti batengatik euskara ikasi duela esatea kristorena da”

JOSUNE ARAKISTAIN, MUSIKARIA ETA HUNTZA TALDEKO KIDEA

“Berriz pandemiarik etorriko balitz, eta etorriko dira, gu berriz noraezean, naufrago”

MIKEL LERTXUNDI, ESKULTORE ETA ARTISTA

“Epaileak hizkuntza politika egiten ari dira, eta ez dagokie”

IÑIGO URRUTIA, LEGELARIA

“Antzinako kantetan daude euskaldunon iraunkortasunaren gakoak”

JEAN MIXEL BEDAXAGAR, MUSIKARIA

1. **Ebazpen:** *erabaki, epei.*
2. **Ase:** *bete.*
3. **Atxikimendu:** *adhesión (es), adhésion (fr).*
4. **Fardel:** *pañal (es), couche (fr).*
5. **Hauts:** *polvo (es), poussière (fr).*

irritzia




MENDIA ZORTZIMILAKOEN HISTORIA, HANKAZ GORA

Erbehard Jurgalski dokumentalistaren ikerketa batek lurrikara eragin du **zortzimilako**¹ historian. Egungo teknologia erabiliz, munduko hamalau zortzimilako orain arteko igoerak ikertu ditu. Ondorioa? Orain arte hamalau zortzimilakoak igo dituzten mendizale gehienek ez zituztela Manaslu, Annapurna eta Dhaulagiri mendien punturik altuenak zapaldu. Ez nahita edota **fedexarrez**², baizik eta ordura arte horiek jotzen zituztelako gailurtzat. Ikerketaren arabera, puntu garaienak beste batzuk dira, nahiz eta **aldea**³ metro gutxi batzuetakoa izan. Horrenbestez, hamalau zortzimilakoak igo dituzten mendizaleen zerrenda aldatu egingo litzateke. Hain zuzen, hori egin du Guinness errekorren liburuak: Reinhold Messner eta Edurne Pasaban, hamalau zortzimilakoak igo zituzten lehen gizonezkoa eta emakumezkoa, liburutik atera ditu, zenbait tontor ez dizkietelako ontzat eman. Ikerketak sekulako polemika eragin du. Nolanahi ere, mendizale gehienek (tar-tean, Messner eta Pasaban) nabarmendu dute lana dela garrantzitsua, marketatik **harago**⁴. Hau da, bidea, ez tontorra.



INGURUMENA AGUR PURPURINARI EUROAPAN?

Nechama LOCK-UNSPLASH




Mikroplastikoen kutsadura gutxitzeko helburuz, hainbat produktutan **nahita**⁵ gehitzen direnak debekatu berri ditu Europako Batzordeak. Hots, **garbigarri**⁶, jostailu eta kosmetikoei **berariak**⁷ gehitzen zaizkienak. Hala, urritik aurrera ezin dira halakoak saldu Europan. Debekua ezartzerakoan, mikroplastikoaren definizio nahiko zabalari heldu diote: bost milimetrotik beherakoak diren polimero sintetikoaren partikula guztiak, disolbaezinak ez ezik degradatzeko zailak ere badirenak. Halakoak dituzten artean, purpurina ezagun eta koloretsua dago. Baina baita kosmetikoetan eta antzekoetan erabiltzen diren perla esfoliatzailak ere. Finean, produktu askotan erabiltzen dira halakoak: garbigarriak, jostailuak, kosmetikoak, botikak, **leungarriak**⁸... Dena dela, debekuari **salbuespen**⁹ batzuk ezarri zaizkio, ekoizleak pixkanaka neurria egoki daitezen. Debekuari esker, ingurumenean milioi eta erdi tona mikroplastiko askatzea **eragotzi**¹⁰ nahi du Europako Batzordeak.

EUSKARA PLAZARA ELKARTEA SORTU DUTE, EUSKARA ERDIGUNEAN JARTZEKO

Iragan irailean, Azkainen, euskalgintzako eragile berria aurkeztu zuten: Plazara elkarteak. "Euskal Herriko plazetan" euskara ikusgarriagoa, entzunagoa eta erabiliagoa izatea du helburu elkarteak. Xan Airek, Irati Fernandez Arbelaitzek, Eneko Gorrik eta Kamila Harluxet Gratienek osatutako lantaldeak sortu du Plazara, eta lau lan ardatzetan jarduteko asmoa du: komunikazioa, aholkularitza, prestakuntza eta plazagintza. Elkarte sortu berria izanik, *Plazatik altxa dezagun Plazara* izeneko **atxikimendu**¹¹ kanpaina jarri dute abian proiektua sendotzeko. Kanpainaren bitartez, urteko bazkidetza egin ahal izango da, **sostengu**¹² ekonomikoa emateko. Hain zuzen, abendurako 1.000 bazkide lortzeko helburua dute. Atxikimendu kanpainari batzeko, *plazara.eus* webgunera jo daiteke. Bertan, **halaber**¹³, elkartearen berri zehatza jaso daiteke.

PLAZARA



ELIKADURA JOGURT NATURALA EGOKIA IZAN DAITEKE BARATXURI USAINA APALTZEKO



Immunitatea handitzen du, **hanturaren**¹⁴

aurka ona da... ugariak dira **baratxuriaren**¹⁵ onurak. Eragozpen nabarmena du, ordea: **kiratsa**¹⁶ utzi ohi du **hatsean**¹⁷. Bada, Ohioko Estatu Unibertsitatean (AEB) egindako ikerketa batek irtenbidea eman diezaioke: jogurta jatea. Ondorioz-tatu dutenez, baratxuri **gordinaren**¹⁸ usain **mina**¹⁹ eragiten duten osagai **lurrunkor**²⁰ gehienak airera joatea eragozten du jogurtak. Haren uraren, koipearen eta proteinen eragina aztertu dute, banan-banan. **Eraginkorrenak**²¹ koipeak eta proteinak izan dira. Baratxuri frijituaren kasuan, aldiz, osagai gutxiago indargabetu zituen jogurtak. Frijitzean, osagai horiek asko murrizten dira, eta horixe izan daiteke arrazoia. Kiratsa apaltzeko, esne **osoz**²² egindako jogurt naturalak dira onenak, horiek baliatu baitituzte ikerketan. Greziar estilokoak are hobekak dira, proteina gehiago dituztelako. Ikertzaileek azaldu dutenez, bestelako zaporea dutenek ere eragina izango dute, ziurrenik. Hori bai, betiere baratxuria jan eta berehala hartzen badira.

1. **Zortzimilako:** *gailurra itsas mailatik zortzi mila metro edo gehiagora duen mendia.*
2. **Fede txarrez:** *de mala fe (es), de mauvaise foi (fr).*
3. **Alde:** *desberdintasun, diferentzia.*
4. **Harago:** *más allá de (es), au-delà de (fr).*
5. **Nahita:** *apropos, propio.*
6. **Garbigarri:** *detergente.*
7. **Berariaz:** *espresuki.*
8. **Leungarri:** *suavizante (es), adoucissant (fr).*
9. **Salbuespen:** *excepción (es), exception (fr).*
10. **Eragotzi:** *impedir (es), empêcher (fr).*
11. **Atxikimendu:** *adhesión (es), adhésion (fr).*
12. **Sostengu:** *laguntza, babes.*
13. **Halaber:** *era berean, baita ere, orobat.*
14. **Hantura:** *inflamación (es), inflammation (fr).*
15. **Baratxuri:** *ajo (es), ail (fr).*
16. **Kirats:** *usain txar.*
17. **Hats:** *aliento (es), haleine (fr).*
18. **Gordin:** *kozinatu gabe.*
19. **Min:** *agrio, a (es), aigre (fr).*
20. **Lurrunkor:** *volátil (es), volatil, -e (fr).*
21. **Eraginkor:** *eficaz (es), efficace (fr).*
22. **Oso:** *entero, -a (es), entier, entière (fr).*
23. **Hautagaitza:** *candidatura (es), candidature (fr).*

jaialdia.eus



DIASPORA BOISEKO 2025EKO JAIALDIAN PARTE HARTU NAHI?

Boiseko Jaialdiaren antolatzaileek Euskal Herriko eta diasporako euskal dantzari, musikari, bertsolari eta artistak gonbidatu dituzte 2025eko edizioan parte hartzera. Uztailaren 28tik abuztuaren 4ra ospatuko da, baina datorren abenduaren 1a baino lehen bidali behar da **hautagaitza**²³ aurkezteko dokumentua (www.jaialdi.com atarian aurki daiteke). Antolatzaileek ez dute bidaia ordaintzen, baina bai janaria eta lotarako lekua, jaialdiak iraun bitartean. Boisekoa Euskal Herritik kanpo egiten den euskal kultur jaialdirik handiena da: sei egunean, 50.000 lagun baino gehiago biltzen ditu, eta erakusketak, musika emanaldiak eta kirolarekin, dantzarekin eta gastronomiarekin lotutako jarduera ugari egin ohi dira. Bost urtean behin antolatzen da, baina azken edizioa 2015ekoa izan zen, 2020koa bertan behera geratu zelako pandemiaren ondorioz.

ITOIZKO URTEGIA ARTEZKIKO 14 LAN IKUSGAI AGOIZKO KULTUR ETXEAN

2003ko irailean Artezki egitasmoa osatu zuten 31 artelanetatik 14 ikus daitezke egunotan Agoizko kultur etxean, azaroaren 4ra arte. Artezki Itoizko solidarioek egindako dei bati esker sortu zen: Artozkiko herriari artelaren bat **dohaintzan emateko**¹ eskatu zieten Euskal Herriko zein kanpoko artistei. Baina baldintza batekin: herria **eraisten**² bazuten, Itoizko urtegia betetzeko, obra guztiak bertan gelditzea, ur azpian. Besteak beste, Jose Luis Zume-tak, Dora Salazarrek eta Juan Gorritik erantzun zioten deiari, eta 31 artelaneko erakusketa jarri zuten Artozkiko elizan. Herria urpean utzi zutenean, ordea, desagertu egin ziren obra haiek, "**poliziak bahituta**". Lan haietako 14 berriki heldu dira Itoizko urtegia eraikitzearen aurka ibili zirengana, "**modu anonimoan**", eta Iruñeko Geltoki aretoan egon dira ikusgai **aurrena**³. Erakusketaren aurkezpenean, "**oraindik bahituta dituen 17 lanak itzultzeko**" eskatu zioten Nafarroako Gobernuari.



EUSKARA HITANOA HIZPIDE⁴ IZANGO DUTE OÑATIN



Euskal Herriko I. **Hika**⁵ Topaketa egingo dute, Oñatin, azaroaren 10ean. UEU Udako Euskal Unibertsitateak eta Badihardugu euskara elkarteak antolatuta dute elkarlanean, hitanoa bultzatzen aritzen diren eragileak batzeko asmoz. Azken urteotan, hitanoa **biziberritzeko**⁶ egitasmoak ugaritu egin dira, baina askotan nor bere kasa ibiltzen da, besteak zertan dabiltzan jakin gabe. Horrek, **halaber**⁷, elkarlana **eragozten**⁸ du. Horrenbestez, eragileok elkar ezagutzera du helburu topaketak, baita lankidetzarako bideak jorratzea ere. Horretarako, topaketan mahai-inguruak egingo dituzte Euskal Herrian garatzen ari diren hainbat egitasmo ezagutzeko. Era berean, iritziak eta esperientziak partekatu, eta proposamenak egiteko aukera emango dute. Topaketan, "**adituak baino, arituak**" bildu nahi dituzte (tartean, AEK-ko hainbat izango dira). UEUren webgunean (www.ueu.eus) eman daiteke izena, eta egitarau osoa ezagutu. Dagoeneko taldea beteta badago ere, itxaron zerrenda zabalik dute.

DONOSTIAKO AQUARIUMA KAXALOTE⁹, URPETIK ETA LURPETIK KANPORA

Urpean lehenik, lurpean ondoren eta, ondo bidean, etorkizunean Donostiako Aquariumean jendaurrean ikusgai. Bide hori osatuko du 2011ko abuztuaren 28an Zarauzko hondartzan agertu zen 15 metroko kaxaloteak. Zehazki, haren hezurrek. Duela hamabi urte, Hernaniko lurretan lurperatu zituzten, **zanga**¹⁰ batean, etorkizunean berreskuratzeko asmoz. Aurtengo abuztuan, **indusketa**¹¹ lanak egin zituzten hezurren egoera egiaztatzeko. Egoera onean zeudela ikusita, Aquariumeko historialari Alex Larrodé eta haren taldeak irailean atera zituzten.

Guztira, hezurren % 80 berreskuratu dituzte, batzuk oso egoera onean eta beste batzuk okerragoan. Orain, eskeletoa garbitu, zurutu eta **zaharberritu**¹² egingo dute, etorkizunean erakutsi ahal izateko. Oraingoan, baina, Donostiako Aquariumak Intxaurren auzoan duen pabiloi batean gorde dute, erakusgai jarri ahal izateko hurrengo urratsak egin arte.



Donostiako AQUARIUMA





EUROPA BEROAK ETA LEHORTEEK GARAGARDOA KALTE DEZAKETE

Garagardo kopurua gutxitu eta, gainera, kalitatea okertu egingo da Europan etorkizunean, **muturreko**¹³ **bero bola-****dak**¹⁴ eta lehorreak ugaritzen badira. Hala dio Txekiako Zientzia Akademiako ikertzaile talde batek. *Nature Communications* agerkarian jakinarazi dutenez, aipatu klima baldintzek lupuluaren **laborantza**¹⁵ kaltetzen dute: **heltzea**¹⁶ arreratzten dute, landareen ekoizpena gutxitzen eta garagardoari zapore **mikatz**¹⁷ ematen dion osagaia **murrizten**¹⁸ dute. Hortaz, laborantza klima aldaketara egokitu **ezean**¹⁹, etorkizunean garagardoaren kantitateak eta kalitateak okerrera egingo dute. Hainbat tenperatura eta euri kopuru oinarri hartuta, simulazioak egin dituzte ikertzaileek. Horien arabera, 2050. urterako lupuluaren errendimendua % 31 apal daiteke, eta zapore mikatza ematen duen osagaiarena % 18. Egoera baikorrenetan, murrizketa % 4 eta % 20koa litzateke, **hurrenez hurren**²⁰. Kalterik handiena Eslovenian, Portugalen eta Espainian gertatuko da. Nolanahi ere, garagardoaren zaporearen eta kalitatearen **eskastea**²¹ sumatzen ari omen dira dagoeneko.

1. **Dohaintzan eman:** *doan eman, trukean ezer jaso gabe eman.*

2. **Eraitsi:** *demoler (es), démolir (fr).*

3. **Aurrena:** *lehenengo, lehenbizi.*

4. **Hizpide:** *mintzagai, hitz egiteko gai.*

5. **Hika:** *tuteo (es), tutoiement (fr).*

6. **Biziberritu:** *revivir (es), renaître (fr).*

7. **Halaber:** *era berean, baita ere, orobat.*

8. **Eragotzi:** *oztopatu, trabatu, zaildu.*

9. **Kaxalote:** *cachalote (es), cachalot (fr).*

10. **Zanga:** *zulo handi.*

11. **Indusketa:** *excavación (es), excavation (fr).*

12. **Zaharberritu:** *restaurar (es), restaurer (fr).*

13. **Muturreko:** *extremo, -a (es), extrême (fr).*

14. **Bero bolada:** *ola de calor (es), vague de chaleur (fr).*

15. **Laborantza:** *nekarizita.*

16. **Heltze:** *maduración (es), maturation (fr).*

17. **Mikatz:** *amargo, -a (es), amer, -ère (fr).*

18. **Murriztu:** *gutxiagotu, eskastu.*

19. **Ezean:** *ez bada.*

20. **Hurrenez hurren:** *ordena horretan.*

21. **Eskaste:** *pobretze, okertze.*

22. **Eraginkor:** *eficaz (es), efficace (fr).*

23. **Heren:** *tercio (es), tiers (fr).*

24. **Ostertz:** *horizonte, zerumuga.*

IKERKETA EUSKARALDIA ERAGINKORRA DELA DIOTE IAZKO EDIZIOKO DATUEK



2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egin zen hirugarren Euskaraldia, eta, aurreko bi edizioetan bezala, Siadeco ikerketa kooperatibak ariketa soziala ikertu du. Azterketaren emaitzek Euskaraldia **eraginkorra**²² dela erakutsi dute, besteak beste. Goiatz Urkijo Euskaraldiaren koordinatzaileak azaldu duenez, "2022an ariketan parte hartu zutenen bi **herenek**²³, intentsitate ezberdinetan bada ere, hizkuntza ohiturak aldatu dituzte". Hori bai, parte hartzaileen kopurua txikiagotu egin dela ere jaso du ikerketak: iazko ariketan 158.440 lagunek eman zuten izena, 2020ko edizioan baino 19.744 gutxiagok (% 11,1 eko murrizketa). Batez ere, gazteen eta gizonezkoen artean jaitsi da izen-ematea. Bestalde, aurreko edizioeko joerari jarraituz, ahobiziaz (% 77,6) belarriprestak (% 22,4) baino gehiago izan dira. Arlo kuantitatiboan zein kualitatiboan beste datu ugari eskaini ditu ikerketak, eta gogoeta prozesua ere hasi dute antolatzaileek, betiere 4. Euskaraldia **ostertz**²⁴ edukita.

GIZARTEA AZAROAREN 30EAN, GREBA FEMINISTA OROKORRA

Zaintza¹ eskubide kolektiboaren alde, greba feminista orokorra deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak datorren azaroaren 30erako. Hego Euskal Herrirako egin dute deialdia, eta sindikatu hauen babesa du: ELA, LAB, Steilas, ESK, EHNE, Etxalde eta CGT. Prozesu luzeago baten emaitza da azaroko deialdia. Lehendik ere, zaintza eskubidea erdigunean jarri izan du mugimendu feministak, zaintza lanak feminizatuak, prekarizatuak eta pribatizatuak daudela salatuta, baita ikusezinak direla ere. Hala, aurtengo martxoaren 8an, udazkenean greba egiteko asmoaren berri eman zuen. Data zehaztuta, **tokian tokiko**² batzarrak eta batzordeak jarri dituzte martxan. Batzuk emakumeenak dira soilik, eta beste zenbait mistoak, baina denek ere helburu bera dute: zaintza eskubide kolektiboaren alde borrokatzeko greba orokorra antolatzea. Horren barruan, hainbat eskaera egingo dira, besteak beste: zaintza **duina**³ eta unibertsala **bermatzea**⁴, zaintza sistemaren pribatizazioa bukatzea eta langileen lan baldintzak hobetzea.



ZIENTZIA ILARGIA USTE ZENA BAINO 40 MILIOI URTE ZAHARRAGOA DA



Ilargiak 4.460 milioi urte ditu, gutxienez. Hau da, orain artean uste zena baino 40 milioi urte gehiago, *Geochemical Perspectives Letters* aldizkarian argitaratu duten ikerketa batek dioenez. Chicagoko Unibertsitateko (AEB) Philipp Heck irakasleak eta Glasgowko Unibertsitateko (Eskozia) Jennika Greer geologoak zuzendu dute ikerketa. Apolo 17 misioko astronautek 1972an Ilargitik ekarritako harriak aztertu dituzte, teknika berriak baliatuta. Zehazki, Ilargitik ekarritako **laginek**⁵ dituzten kristal **ñimiño**⁶ batzuk aztertu dituzte, **zunda**⁷ atomikoko tomografia izeneko metodo analitiko erabiliz. Lurra sortzen ari zenean jaio zen Ilargia. Eguzki Sistema sortu berritan, Marteren tamainako objektu erraldoi batek Lurraren kontra jo zuen; bada, **talka**⁸ haren hondakinak **trinkotu**⁹ zirenean sortu zen Ilargia. Datak, alabaina, eztabaida sortzen zuen. Lehenago ere, beste ikerketa batek oraingoak kalkulaturako adina aipatu zuen. Orduko hura **berretsi**¹⁰ du, hortaz, ikerketa honek.

1. **Zaintza:** *cuidado (es), soin (fr).*

2. **Tokian toki:** *toki bakoitzeko.*

3. **Duin:** *digno, -a (es), digne (fr).*

4. **Bermatu:** *garantizar (es), garantir (fr).*

5. **Lagin:** *muestra (es), échantillon (fr).*

6. **Ñimiño:** *oso-oso txiki.*

7. **Zunda:** *sonda (es), sonde (fr).*

8. **Talka:** *kolpe, txoke.*

9. **Trinkotu:** *compactar (es), compacter (fr).*

10. **Berretsi:** *baieztatu, konfirmatu.*

Errigorako saski gozoa, euskara ikasteko laguntza



Hamar urte joan dira Errigoraren *Euskarari Puzka* kanpaina lehenengoz egin zenetik. Ekimen honen bidez, Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko ekoizleei laguntzen zaie eta jasotako diruaren % 25 bertako euskaletza **suspertzeko**¹ erabiltzen da. Hala, hamar urtean 130.000 otzara baino gehiago salduta, euskaletzaren zakua ederki bete da: 1.800.000 € lortu dira saskiek emandako **mozkinen**². Adibidez, joan den ikasturtean Ager eremuan (Nafarroako hegoaldea eta erdialdea) euskara ikasten jardun zuten lagunek 21.000 € jasoko dituzte Errigora bekari esker. Zangozaldeko, Izarreibarko, Lizarraldeko, Lodosaldeko, Tafallaldeko eta Erriberako 221 ikaslek egin zuten eskaera, ezinbesteko bi **baldintza**³ bete ondoren: batetik, administrazio nagusiak (Euskarabidea) ematen duen diru-

laguntza eskatzea; bestetik, % 80ko asistentzia bermatzea. Ikasturte honetan ere izango dute beka eskatzeko eta jasotzeko aukera, beraz, bistan da Errigorako saskiak erosteak ekarpen polita egiten diola Ager eremua euskalduntzeari; **bidenabar**⁴, Erriberako baratzeak produkzio ederraz gozatzeko aukera ematen die erosleei. Udazken honetan, kutxa bakarra egongo da salgai, hasieran bezala. Dagoeneko eska daitezke, azaroaren 9ra arte, www.errigora.eus atarian, eta 50 € balio du.

1. Suspertu: *indartu, sendotu.*

2. Mozkin: *ganancia (es), profit (fr).*

3. Baldintza: *condición (es), condition (fr).*

4. Bidenabar: *de paso (es), au passage (fr).*





JON ZABALA

GIZARTE PSIKOLOGOA

EHUko Gizarte Psikologia CCE ikertaldeko kide da Zabala (Lekeitio, 1990). Korrika ikertzen ari da bere doktoretza lanean. Korrikan parte hartzeak ondorio psikologiko positiboak dituela ondorioztatu dute ikertaldean, eta kolektiboki **ahalduntzen**¹ gaituela. Horretarako, Émile Durkheim soziologoaren (Épinal, Frantzia 1858 - Paris, Frantzia 1917) teoria bat egiaztatu dute. Doktoretzaren azken txanpan, ikerketan jarraitzeko ilusioa du: *“Ahal bada, horretan jarraituko dut”*.

“Korrikak indarberrituta sentiarazten gaitu”

Ikerketa kale hizkerara² ekarrita, esan dezakegu Korrikan parte hartzeak ongizate³ txutea⁴ eragiten digu-la?

Bai, pisuzko **zantzuak**⁵ aurkitu ditugu hori baieztatzen. Korrikak, nolabait, txute hori sortzen digu, indarberrituta sentiarazten gaitu, bai maila kolektiboan bai maila indibidualean.

Nolako da txutea?

Korrika bizi izan duen edonork badaki emozio ez-tanda handia dela. Alaitasuna sentitzen da, **zirrara**⁶, hunkidura... Horrek ni-a hedatzen du, indartsuago edo sentitzen gara, eraberrituago, energia handiz, nolabait esatearren.

Ahalduntzen gaituela diozue ikerketan, eta integratuago sentitzen garela.

Hori da. Sakonagoak dira Korrikaren eraginak. Hau da, ez da soilik emozioen txutea, baizik eta emozio horiek partekatuak direla sentitzen dugula. **Bateratasun**⁷ emozionala sentitzeak **kidetasun**⁸ sentimendura edo integratuago sentitzera eramaten gaitu, eta, aldi berean, boteretsuago sentitzera maila kolektiboan.

Durkheimen teoria bat egiaztatu duzue. Zer zioen hark?

Gizarte jakinek tarteka ospatzen dituzten erritu kolektiboak funtsezkoak direla gizarte horren kohesiorako eta kideen osasun psikologikorako. Berak bere garaian ikertutako gizarte modernoetako depresio eta suizidio tasa altuak kohesio edo kidetasun falta horri zegozkiola ondorioztatu zuen. Hau da, lanaren dibertsifikazioaren ondorioz, gizarte homogeneoa izatetik oso heterogeneoa izatera igaro ginen, balio eta sinesmen oso irmoak zituenetik oso likidoak dituenera. Durkheimen ustez, erritu kolektibo horiek ospatzeak gure taldean finkatzen gaitu, nolabait: gure taldearekin partekatzen ditugun balio eta sinesmenak indarberritzen ditugu, eta, horrela, giza-banakoa bere bizitza indibidualera eraberriturik itzultzen da. Soziologoaren esanetan, badago hori gertatzeko funtsezko elementu bat erritu kolektiboetan: eferbeszentzia kolektiboa.

Eta zer da hori?

Erritu kolektiboko parte hartzaileen artean atzeraelikadura emozionala sortzen da eta, horren bidez, bateratasun emozionala; bada, horixe da. Bateratasun horrek azaltzen ditu erritu kolektiboetan parte hartzearen ondorio psikologiko positiboak.

Nolatan erabaki zenuen Korrika aztertzea?

Nola ez? Korrika da Euskal Herriko erritu kolektiborik masiboena, hunkigarrietakoa, baita gure kulturaren zutabeetako bat ere. Beraz, nola ez ikertu?

Korrikak bezala, zein beste ekitaldik sor dezakete halako efektua?

Ez nuke jakingo esaten Korrikaren parekoa zein izan daitekeen. Donostiako danborrada ikertu izan da Durkheimen ikuspuntutik, eta antzeko eraginak ikusi dira. Futbol partidak, Gure Eskuren giza katea...

Gizakia zenbat eta sozialago, are eta onuragarriago berarentzat?

Baietz uste dut. Azken batean, ongizate sozialari dagokionez, pertsona batek zenbat eta gehiago **antzeman**⁹ gainerako pertsonak onak direla, edo gainerako pertsonen ontasunean zenbat eta gehiago sinetsi, ongizate hobe erakusten du. Sozialagoa izateak ere zer esan nahi

Di-da batean

Zerk alaitzen dizu eguna?

Auzokideekin **solastatzeak**¹⁰.

Eta tristatu?

Eguna aprobetxatu ez izanak.

Zerk eragiten dizu barrea?

Tontakeriek.

Eta negarra? Gauza askok.**Zerk haserreazten zaitu?**

Desordenak. Edo trafikoak.

Bizio bat? Pizza.**Plazer txiki bat?**

Goizetan irratia piztea.

Sekulako plazer bat?

Liburu on bat edo bazkari eder bat.

Zer izan nahi zenuen txikitari?

Ikertzailea.

Eta orain, zer ez zenuke izan nahi?

Erabateko begetarianoa.

Sare sozialik erabiltzen al duzu?

Bai, Instagram.

Korrikan, lekukoa eraman al duzu inoiz?

Bai. Gainera, patua izan zela iruditzen zait: 2019an ikertu nuen Korrika, eta orduan eraman nuen lehen aldiz. Zozketa egin genuen laguneren artean eta niri tokatu zitzaidan.

Korrika ez den beste erritu kolektibo bat?

Herriko festak.

du? Segur aski, onartuago sentitzea bai bere burua bai besteak. Horrek jokaera prosozialak areagotzen ditu. Hor-taz, zalantzarik gabe, bai. Ez dut uste isolamenduak inolako onurarik dakarrenik. ●

1. Ahaldundu: *empoderar (es), autonomiser (fr)*.

2. Kale hizkera: *jerga (es), argot (fr)*.

3. Ongizate: *bienestar (es), bien-être (fr)*.

4. Txute: *chute (es), shoot (fr)*.

5. Zantzu: *señal (es), signe (fr)*.

6. Zirrara: *emozio*.

7. Bateratasun: *convergencia (es), convergence (fr)*.

8. Kidetasun: *camaradería (es), camaraderie (fr)*.

9. Antzeman: *nabaritu, sumatu*.

10. Solastatu: *conversar (es), converser (fr)*.

Atal honetan, izenen jatorrian sakontzeko ahalegina egiten dugu, eta atea parez pare zabalik ditugu zuen proposamenak jasotzeko. Horrenbestez, zuen izenaren jatorria edota esanahia jakin nahi badituzue, eskatzea libre!

Posta elektronikoa honetara idatzi besterik ez duzue egin behar: aizu@aek.eus. Bilatzen eta zuen eskura jartzen saiatuko gara, ezer agintzen ez badugu ere...

Aiora

Erdi Aroko izena da. Leireko kartulario zaharrearan ageri zen, 1068an: “*Iruñean Johanes dela apezpiku, Aiora Arzeiz de Izizek eta **haurrideek**¹ Zabaltzako beren 16 **jopu**² ematen dizkiote Leireko monasterioari*”. Bitxikeria bi dugu bertan: batetik, kartulario hura “*becerro/veau*” da erdaraz, antzina txahal larruz egiten zirelako liburuak; bestetik, Aiora hura “esklabista” izan zen, bere lurretako nekazariak eman zizkielako monjeei.

Ez dugu ezagutzen zer esan nahi duen. Beharbada, zerikusia du grezierazko *aioria* edo *eolia* kontzeptuekin, zeinek “haizea” esan nahi duten (gogoratu Greziako mitologiako Eolo jainkoa edo Erigonen omenez egiten zen Aiora jaia), baina ez da ziurra. Seguru, ezer gutxi dakigu: **aldaera**³ maskulinoa zuela, Aioro (agian, Aioro/Aiora horietatik dator Aiara izena, Arabako udalerrria).

Valentzian bada Aiora herria (gaztelaniaz, Ayora), Requena inguruan. Hari buruz, J. Corominas filologoak uste zuen *uyura* hitz arabiarretik zetorrela, hau da, basastoa. Besteren batek, aldiz, *abia* erroa (ibai) eta *ola* atzizki latinoa aipatu ditu (*abiola*, gero *aiora*).

922 Aiora dugu Hego Euskal Herrian: famatuena, Aiora Renteria Agirre kantaria (Bilbo, 1976). Ekuadorren ere badira *ayora* izeneko txanponak: zilarrezkoak dira, eta herritarrek izendatu zituzten horrela, Isidro Ayora presidenteak ezarri zituelako 1926an.

1. **Haurride**: *senide*.

2. **Jopu**: *esklabo*.

3. **Aldaera**: *variante (es/fr)*.

Fermin

Jatorria argia da: latineko *firmus* (irra, tinko, fermu).

Aurreneko kristauek izen hori erabiltzen zuten Kristoren fedean halaxe irauko zutela adierazteko. Aldaera (S. Aranarena) Pirmin da, haren ustez euskaraz ez da goelako “f” soinurik.

Ferminik ezagunena Iruñekoa dugu, inoiz existitu bazen. Ez da baxterea segurua, ez baitago inolako dokumentaziorik haren gainean. Are gehiago, hipotesi batek dio gurea III-IV. mendeetako beste santu baten kopia izan litekeela: Amiensko Fermin santuarena.

Antza, kondaira IX. mendean sortu zen Amiensen: horren arabera, Iruñean jaio zen 272an, familia aberats eta pagano batean (Firmo, aita, senataria zen; Eugenia, ama, noblea). Gero misiolari kristau eta Amiensko (zein Iruñeko) lehen gotzain bihurtu zen. 31 urterekin hil zen, lepoa moztuta.

Edonola ere, haren jaia irailaren 25ean eta, noski, uztailaren 7an ospatzen da. Lesakako zaindaria da (eta Nafarroakoa, Frantsizko Xabierkoarekin batera), baina ez Iruñekoa, bertan egon arren San Fermin Aldapakoaren basilika; hortaz, ez da zehatza “*Entzun arren, San Fermin, zu zaitugu patro...*” kanta.

Bide batez, tradizioa San Saturninoren istorioarekin nahastu zelako egoten dira zezanak Iruñeko sanferminetan: martiri hori (Patras, Grezia, ? - Okzitaniako Tolosa, 257) holako animalia batek **txikituta**¹ hil omen zen.

1. **Txikitu**: *destronar (es), déchiqeter (fr)*.





“Euskara oldarraldiz oldarraldi bizi da”

AMAGOIA MUJIKA TOLARETXIPI (Andoain, 1971) *Euskaldunon*

Egunkariako erredakzioan hasi zen lanean kazetaritza gradua amaitu bezain laster. *Berria* **kazetaren**¹ zuzendaria da orain, joan den uztailetik. Laster, *Berria* guztiz berrituta plazaratuko da.

1. **Kazeta:** egunkari.

Zein izango dira *Berria* berriaren erronka nagusiak?

Aldaketa handia dator, erabatekoa. Denbora luzeko go-goetaren ondorioa hil honen erdialdera argitaratuko da. Erronka izango da, batez ere, egiten dakiguna hobeto egitea, hau da, gertuko informazioa ematea Euskal Herrirako, eta erronka berriei hobeto erantzutea. Adibidez, feminismoari atal berezia eskainiko diogu, ingurumenari beste bat, baita tokian tokiko informazioari ere. Eta hori guztia ondo erakustea, guretzat inportantea delako edukiak ondo ematea, baina baita ondo erakustea ere. Horrexegatik egingo dugu erabateko aldaketa, bai digitalean bai paperean. Webgunea, jendeak gauzak errazago eta arinago irakurtzeko, argiagoa izango da. Eta irakurleak bere webgunea pertsonalizatu ahal izango du gustuko dituen gaiekin. *Entzun Berria* atala ere sortuko dugu, eta, orain daudenez gain, podcast berriak egingo ditugu. Euskararekin lotuta ere bai, noski. Erronka nagusia da euskal komunitate sendoak merezi duen egunkaria egitea eta, hori egiten dugun neurrian, komunitatea indartzea. Azkenean, gurea euskal mundua da, eta gure hizkuntzak aurrera egiteko tresna bat gara.

Euskara, feminismoa, ingurumena. Zergatik gai horiek?

Euskara oinarritzakoa dugu, euskaraz argitaratzen den egunkari bakarra da *Berria*. Bestalde, mundua berdintasunetik ikusten dugu, eta berdintasun hori bultzatzea eta bermatzea **ezinbestekoa**¹ iruditzen zaigu. Alde horretatik, geure burua feministatzat daukagu, eta ez kanpora begira bakarrik: etxe barruan ere berdintasun hori bultzatzeko betebeharra sentitzen dugu. Hori dela eta, barne prozesua egin dugu, egiten ari gara eta egingo dugu, azken batean guretzat begiratu egin dezakegun ekarpena mundu justua eraikitzea delako. Ingurumenari dagokionez, mundua **suntsitzen**² ari gara, baina hori gabe ez daukagu zereginik. Mundua hondatzen ari garen neurrian, ezberdintasunak ere areagotzen ari gara. Eta badakigu nori eragiten dion, batez ere, ingurumenaren sarraskiak: pobrezia, emakumeak... Zeregin handia daukagu hori argi adierazten, salatzen eta irtenbideak ematen saiatzen. Horixe da gure eginkizuna.

Aurreikusi duzue uneren batean paperezko egunkariaren desagertzea?

Oraingo ez. Orain dela urte dezente agertu zen mamu hori. Argi dago papera indarra galtzen ari dela; halako batean, bere izaera ere galduko du, baina uste baino denbora gehiago irauten ari da. Gainera, paperezkoaren gure irakurlea oso fidela da, eta horri esker ere irauten dugu. Hortaz, papera ezin dugu alde batera utzi, eta ez

“ERRONKA NAGUSIA DA EUSKAL KOMUNITATE SENDOAK MEREZI DUEN EGUNKARIA EGITEA”

“PAPER A USTE BAINO DENBORA GEHIAGO IRAUTEN ARI DA”

“GURE EGINKIZUNA DA JENDEAK AHALIK ETA GEHIEN IRAKURTZEA EUSKARAZ”

“INDEPENDENTEA IZATEA BERRIALAGUNEN ETA HARPIDEDUNEN BIDEZ BAKARRIK LORTUKO DUGU”

dugu nahi, gainera. Mantendu egin nahi dugu ahal den neurrian, irakurleek erosten edo harpidedunek jasotzen duten neurrian. Paperezkoa oso ondo egiten dakigu, eta ez genuke galdu nahi, baina egoerak ez dela **bideragarria**³ esaten digunean, utzi egingo diogu.

Webguneko edukiak doan ematen jarraituko duzue?

Bai, gure eginkizuna ahalik eta euskaldun gehienengana iristea delako. Herri txikia gara eta ezin diogu mugarik jarri irakurle euskaldunari. Hori bai, guretzat komunitatea oso garrantzitsua da, Berrialekua oso inportanteak dira, eta horiekiko harremana areagotu egin nahi dugu. Pentsatzen ari gara diruz babesten gaituen komunitate horri zerbait berria ematea; adibidez, zenbait eduki aurreratzea. Abantaila batzuk orain ere ematen ditugu, baina horretan sakondu nahi dugu, feedback handiagoa jaso. Berrialekua egunkariaren alde zerbait ona egiten ari dela sentitzea nahi dugu, hark ere jaso ditzala abantaila batzuk, baina ez da inondik inora edukirik itxiko. Hori argi geratzea nahi dut, gure eginkizuna delako jendeak ahalik eta gehien irakurtzea euskaraz eta ahalik eta euskaldun gehiago egotea mundu honetan.

“PENTSATZEN
DUGU SARE
SOZIALAK
ERABILTZEN
JAKITEAGATIK
DENOK IZAN
GAITEZKEELA
KAZETARI”

“EGUNERO-
EGUNERO
EGIN BEHARKO
DIOGU AURRE
EUSKARAREN
AURKAKO
OLDARRALDIARI”



Gazte askorentzat informazioa jasotzeko modu bakarra sare sozialak izanik, bereziki erreparatuko diezue?

Bai. Oso modu ezberdinean irakurtzen dute dena, eta sare sozialetatik iristen zaizkie gauza asko. **Ahalegina**⁴ egi-ten ari gara ikus-entzunezko eskaintza asko handitzeko, sare sozialez gain, podcasten bidez eta. Helburua gazteengan heltzea da, baina ez sareen bidez bakarrik, baita edukien bitartez ere. Azkenenean, garrantzitsuena da zer irakurtzen den. Badakigu gazteen gustuak non dauden, baina ez dugu horietara mugatu nahi, beste guztia zaindu gabe. Gazte jendeak beste gustu batzuk dauzkala ikusten dugu, hor kokatzea zaila da, baina hori da bidea. Gure eginkizuna egunkari bat egitea da, kalitatezkoa, fidagarria, gertukoa... Hala ere, komunikabide bat jada ez da egunkari bat bakarrik, baita ikus-entzunezkoak ere, eta hortik egin nahi dugu saialdia. Etorkizuna gazteengan dago; beraz, etorkizuna eduki nahi badugu, haiengana heldu behar dugu.

Hedabideen digitalizazioa eta berrikuntza beharrezkoak dira, baina nola egin? Dirulaguntza publikoen bidez?

Aitortu⁵ behar dugu, eta ez dugu inolako lotsarik esateko, guretzat erakundeen dirulaguntzak oso inportan-

teak direla. Hedabide euskaldun batek ezingo luke bizi horiek gabe, baina momentu honetan gure diru sarrera gehienak publizitatetik eta Berrialagunengandik eta harpidetzetik datoz, % 70 gutxi gorabehera. Komunitatea handitzeko helburua ere badu berrikuntza honek, informazio hobea eskainiz, besteak beste, independenteagoa izateko. Hau da, edukiak geuk aukeratzeko, eta zer esan nahi dugun geuk erabakitzeke. Hori Berrialagunen eta harpidedunen bidez lortuko dugu, ez dago beste modurik. Haien ekarpenari esker gaude hemen, eta haien ekarpen handiagoari esker espero dugu urte **dezentean**⁶ hemen jarraitzea.

1. Ezinbesteko: behar-beharrezko, derrigorrezko, nahi-taezko.

2. Suntsitu: destruir (es), détruire (fr).

3. Bideragarri: viable (es), viable (fr).

4. Ahalegin: esfuerzo (es), effort (fr).

5. Aitortu: reconocer (es), reconnaître (fr).

6. Dezente: nahiko, aski.

Adimen¹ artifiziala ziztu bizian² zabaltzen ari den honetan, egin daiteke kazetaritza ona?

Adimen artifiziala erakusten zaionetik elikatzen da. Ez dakigu oso ondo nondik joango diren gauzak, oso azkar doa dena eta gogoeta ere egin behar dugu. Iruditzen zait guretik ere elikatu beharko genukeela adimen artifiziala, gure albisteak emateko. Halere, guk dakigun hori egiten jarraitu behar dugu. Oraingo, kokatzen ari gara, ikusi egin beharko bide hori nolakoa izango den, inork ez daki. Beldurra ematen du neurri batean, baina aukerak ere zabal ditzake.

Sinesgarritasun³ galera izugarria izan dute hedabide batzuek azkenaldian. Merezita?

Ez nuke inor markatu nahi, baina egia da oro har sinesgarritasuna galdu egin dela. Batetik, batzuk **mendekotasunetik**⁴ ari direlako eta menderatzaileak nahi duena esan behar dutelako. Bestetik, sare sozialetan **nahas-mahas**⁵ izugarria dago, eta hortik egia ez diren albiste asko etortzen dira. Pentsatzen dugu sare sozialak erabiltzen jakiteagatik denok izan gaitezkeela kazetari. Horregatik da orain une inportantea guretzat: sinesgarritasun ezaren aurrean, konfiantzazko albisteak eman eta jende batentzat **eredugarriak**⁶ izan nahiko genuke, *Berrrian* aurki dezatela benetan gertatzen dena. Horretan saiatu nahi dugu behintzat, eta horregatik da guretzat oso inportantea komunitate handia edukitzea atzean, horrexek ahalbidetzen digulako nahi duguna edo ikusten duguna inolako mendekotasunik gabe kontatzea.

Adibidez, zer iruditzen zaizu nola ari diren jorratzen hedabideak Palestinako gatazka?

Argi dago Hamasek eraso egin diola israeldar herriari, jendea hil du, hori inork ez du onartzen eta ez da onartu behar, baina israeldarrena justifikatzeko eta palestinarrena justifikatzea ahazteko **joera**⁷ handia dago, noiztik dau-den **zanpatuak**⁸ eta zer-nolako zapalkuntza den. Leku askotan hori argitzen ari badira ere, beste askotan parean jartzen dituzte biak, Hamasen eraso ezerezetik etorri balitz bezala. Israelek esan zuen Gazakoak ez zirela pertsonak, animaliak baizik! Hortik abiatzen dira, baina abiapuntua ez da hori. Ez dezagun ahaztu Gaza errefuxiatuen eremua dela eta errefuxiatu horiek beren lurretatik alde egin behar izan zutela. Ez da ahaztu behar Gazan kartzela handi batean bizi direla, argindarrik, jatekorik eta urik gabe. Egun batean, bonba bat; hurrengoan ere bai. Beldurrak eta etorkizun ezak eragindako **egundoko**⁹ arazo psi-

kologikoak dituzte. Sekulako sarraskia da, eta hainbeste urteko zapalkuntza mahai gainean jarri behar da. Hedabide batzuk politikariek esaten dutenetik bakarrik elikatzen dira, eta hori baino gehiago egin beharko lukete.

Badago gurean publiko nahikorik euskaraz egindako kalitatezko produktu batentzat?

Oraindik badaukagu nondik hazi, asko. Gure komunitatean, hainbatek dakite euskaraz, baina batzuek ez dute euskaraz kontsumitzen. Ohitura horiek aldatu egin behar ditugu. Hedabide sare sendoa edukiko bagenu, pixkanaka aldatuko genituzke ohiturak. Zerbait interesantea ematea lortuko bagenu, eduki propioa, gaurkotasuna izango duena, mundua beste begirada batez erakutsiko duena... erakartzeko aukera asko dauzkagu. Ohiturak aldatzeko, **inurri**¹⁰ lana behar da, pixkanaka.

Zer egin euskara pairatzen ari den oldarraldi¹¹ judizialaren aurrean?

Euskara oldarraldiz oldarraldi bizi da. Orain, oldarraldi judiziala daukagu. Aurretik, beste zapalkuntza mota batzuk. Beti gabiltza arriskuan. Kanean erantzun behar dugu, azaroaren 4an manifestazioan aterako gara, baina egunero erakutsi behar dugu zer nahi dugun, eta injustiziak salatu. Zer dela eta oraingo hau? Ez dakit, baina badirudi estrategia jakin bat dagoela atzean. Katalunian ikusi genuen, orain dela urte batzuk, zer pasatzen ari zen: katalana hazkundearen zegoen eta bat-batean gaztelania zapaltzen ari zelako diskurtsoa agertu zen. Hemen, diskurtso hori bera zabaltzen ari da orain, euskarak gaztelania zapalduko balu bezala, kar-kar! Barregarria litzateke, hain kontu serioa ez balitz. Garai batean ateratzen ausartzen ez zen diskurtso hori orain esan egiten da, eta euskaldunok pribilegiadunak bagina bezala zabaltzen ari da. Kontradiskurtsoa eraiki behar dugu horri aurre egiteko, eta hori eguneroko lana da. Manifestazioarekin Bilboko kaleak bete behar ditugu, zer garen eta zer gertatzen ari zaigun erakusteko, baina egunero-egunero egin beharko diogu aurre oldarraldiari.

Hala ere, merezi du euskara ikastea. Zergatik?

Mundu bat zabaltzen duelako, bizimodu oso aberatsa. Merezki duen kolektibo oso bereziaren parte izateko aukera ematen du, eta bizitzeko beste modu bat eskaintzen. Ni goizetik gauera bizi naiz euskaraz, amets ere euskaraz egiten dut, eta ez nuke ezergatik aldatuko. Probatzea merezi du. ●

1. **Adimen:** *inteligencia (es), intelligence (fr).*
2. **Ziztu bizian:** *oso-oso azkar.*
3. **Sinesgarritasun:** *credibilidad (es), crédibilité (fr).*
4. **Mendekotasun:** *subordinación (es), subordination (fr).*
5. **Nahas-mahas:** *confusión (es), confusion (fr).*
6. **Eredugarri:** *ejemplar (es), exemplaire (fr).*
7. **Joera:** *tendencia (es), tendance (fr).*
8. **Zanpatu:** *oprimir (es), opprimer (fr).*
9. **Egundoko:** *sekulako, izugarritzko, kristoren.*
10. **Inurri:** *hormiga (es), fourmi (fr).*
11. **Oldarraldi:** *ataque (es), attaque (fr).*
12. **Bezalatsu:** *ia-ia berdin.*

KOLKOTIK


Kazetaria izateak daukan gauza on bat?

Mundua eta gauzak ikusteko sentsibilitate berezia pizten dizula.

Eta txarra? Kontrasterako astirik eza. Azkar ibili beharrak askotan galtzen gaitu.

Urte bukaeran jakiten da, baina zein izango ote da 2023ko hitz erabiliena? Oldarraldia, zoritxarrez.

Ondo informatuta egoteko modurik egokiena? Egunero egunkaria irakurtzea, kar-kar! Zer esango dut, bada?

Zein sare sozialetan ibiltzen zara erosoan? Eroso, inon ez. Ez zait gustatzen horko nahasmena eta gauzak hainbeste magnifikatzea.

Biharko egunkarian argitaratu nahiko zenukeen titularra? Euskal Herri euskalduna lortu dugula, edo pobrezia bukatu dela, baina ezin dira egun batetik bestera eman.

Zer egiten duzu erlaxatu beharra duzunean? Askotan ez dut lortzen erlaxatzea, baina korrika egiten dut, edo pianoa jo.

Zer ez da falta inoiz zure etxeko hozkailuan? Urdaiazpiko egosia eta gazta.

Bizitzako plazer txiki bat? Ganbak jatea.

Zer ikusten duzu ispiluaren aurrean jartzen zarenean? Neska serioa. Ispiluaren aurrean barre gutxi egiten dut, kar-kar!

Nola ikusten duzu zeure burua 20 urte barru? Orain baino zaharrago, baina orain bezalatsu¹². Hori nahiko nuke, jada jubilatuta, hori bai.

Larunbat gauerako planik onena? Ez dut plan berezirik egiten, gehiago gustatzen zait eguna.

Eta igande arratsalderako? Telesail bat ikustea, liburu bat irakurtzea edo pianoa jotzea.

Zerk galarazten dizu loa? Batez ere, nire beldurrek. Lo gutxi egiten dut, eta gaizki.

Zerk ematen dizu, bada, beldurra? Normalean, gertatuko denak edo gertatuko dela uste dudanak.

Eta amorrua? Injustiziak.

Eta lotsa? Gauza askok. Jendearen aurrean hitz egiteak, adibidez.


Zer izan nahi zenuen txikitan? Idazlea.

Labur, nolako da Amagoia? Pertsona ona, eta burugorria.

Etxepare Euskal Institutua


“Euskara, *jalgi*’ hadi mundura” idatzi zuen, XVI. mendean, Bernart Etxepare idazleak. Lelo hura bere eginda, horixe du helburu Etxepare Euskal Institutuak: euskara eta euskal kultura nazioartean ezagutzera ematea. Euskararen eta euskal kulturaren enbaxadore da erakunde publiko hau, 2010ean sortua. Horretarako, makina bat bide baliatzen du erakundeak, Irene Larraza buru duela.

EUSKALTZAINDIA



Etxeparek Etxepare

Bernart Etxepare idazle eta apaizari (Sarasketa, Nafarroa Behera, 1480 – ?, 1560) zor dio izena institutuak. Sarrerako hitzak ikusita, erraz jakin ahal da zergatik: hark idatzita-koak primeran **laburbiltzen**² du Etxepare Institutuaren egitekoa. Euskal letretan, funtsezkoa da Bernart Etxepare, euskarazko lehen liburu inprimatuaren egilea izan zelako: *Linguae Vasconum Primitiae*. 1545ean Bordelen argitaratua, liburuan bertan lehen euskal idazlea zela aipatu zuen. Poema liburua da, eta gehienak erlijio zein amodio kontuei buruzkoak dira. Baina azken biek, *Kontrapas* eta *Sautrela* izenekoek, euskarari **gorazarre**³ egiten diote. Plazara, mundura ateratzeko agintzen dio euskarari Etxeparek. Biak abesti klasiko bihurtuak, gaurkotasanik galdu ez duten leloak dituzte. *Kontrapas*-ekoek funtsa ematen diote Etxepare Institutuari: *Euskara, jalgi hadi plazara*.



Euskara Munduan

Euskara mundura jalgi dadin, munduan euskara ikasteko aukerak **ahalbidetzen**⁴ ditu Institutuak. Horretarako, bi sare nagusi ditu: euskal etxeak eta unibertsitateak. Euskal etxeei dagokienez, Etxepare sortu aurretik egiten zen lana babestu eta indartzen du, Euskara Munduan programarekin. Horren bitartez, munduko hainbat euskal etxetan ematen diren euskal eskolak laguntzen ditu, bai diruz bai irakasleen trebakuntza sustatuz bai materialez **hornituz**⁵. Gainera, euskara maila egiaztatzeko azterketak antolatzen ditu nazioartean, Bartzelonan, Madrilen, Parisen eta Buenos Airesen, hain zuzen. Gaur egun, 17 herrialde-tako 64 euskal etxetan eskaintzen dituzte euskara eskolak programaren babespean. 2021-2022 ikasturtean, 1.679 ikasle aritu ziren, guztira, euskara ikasten.




Irakurletzak munduan

Unibertsitateak ere euskara eta euskal kultura munduratzeko tresna dira. Bide akademikoagoa da, eta **irakurletza**⁶ programaren eta euskal ikasketen katedren bitartez gauzatzen du Etxeparek. Zer dira irakurleak? Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura ikasteko eskolak ematen dituzten irakasleak. Egun, Etxeparek 18 herrialdetako 35 unibertsitateetan ditu irakurletza programak. 2021-2022 ikasturtean, 1.403 matrikula egin ziren euskara eta euskal kultura eskoletan. Katedrak, berriz, 12 dira gaur egun. Euskal ikasketei buruzko irakaskuntza espezializatu sustatzeko tresnak dira. Hori bai, dela euskal etxeen bidez, dela irakurleen bidez, eta betiere tokiko lantaldeen arabera, Korrika mordo ere antolatzen dute nazioartean!

Etxepare Institutua

2022an egin zen V. Irakurleen Topaketa.



Sormenaren joan-etorria

Euskal sortzaileei leihoak zabaltzen dizkie nazioartean Etxeparek. Mota askotako leihoak dira. Adibidez, nazioarteko plazetan diziplina orotako euskal sortzaileen presentzia bultzatzen du, hitzordu ezagunetan lekua eginda: jaialdiak, bienalak... Aurten, besteren artean, Tokyo International Film Festival-en eta Sao Pauloko Bienalean izan da euskal kultura. Bertokoak mundura bidali eta mundua Euskal Herrira begira jartzeko egitasmoak ere bultzatzen ditu. Baita literatur itzulpenak sustatu ere. Horrez gain, trukeak ere bideratzen ditu. Horren adibide, Kultur Konexioak programa, tokiko kulturak elkarrekin harremanean jartzen dituen. Aurten, eta 2024ra arte, Flandriako eta Euskal Herriko kulturak bat egiten ari dira, jarduera ugari bidez. ●

1. **Jalgi:** irten.
2. **Laburbildu:** resumir (es), résumer (fr).
3. **Gorazarre (egin):** elogiari (es), louer (fr).
4. **Ahalbidetu:** posible egin.
5. **Hornitu:** aprovisionar(se) (es), (s')approvisionner (fr).
6. **Irakurletza:** lectorado (es), poste de lecteur (fr).



Baionako festen eredua aldatuko zenuke?

Jai giroa bai, baina baita ondorio latzak ere: indarkeria, bortxaketak, masifikazioa... Egungo festen eredua aldatzeko beharra ikusi dute Baionako hainbat elkartek eta herritarrek. Hala, 2032 Kolektiboa sortu dute festei buruzko gogoeta egiteko. Besteak beste, kultura eta bizilagunak erdigunean jarriko dituzten festak nahiko lituzkete. Interneten ere abiatu da sinadura bilketa, Baionako Herriko Etxeari gaiari buruzko galdeketa eskatzeko. Egungo festa eredua aldatu beharra dagoela uste duzue?

BAIONAKO AEK GAU ESKOLAKO B2 MAILA



Gai honi buruz eztabaidatzea ez da erraza, iritzi eta interes kontrajarriak dauzkagulako. Hala ere, jende kopuruak muga guztiak gaingaitzen ditu eta, eredu hau berrikusi behar da. Masifikatuak izan arren, Baionako bestek herrikoi izateari uzten diotela irudi zait. Hemengo biztanle askok ihes egiten dute, eta kanpotik etorritako anitzek ez daukate ez hiriarekiko errespeturik, ez biztanlekilakorik. Hemengo erakundeek, Herriko Etxea barne, hegoaldeko hiri batzuek ekitaldiak nola antolatzen dituzten ikus lezaketela uste dut. Adibidez, Bilboko Konpartsen eredutik zenbait alderdi on inporta ditzakegu bestak hobeak izan daitezen: ez bakarrik erasoan eta indarkerien aurka borrokatzeko, baizik eta baionarrei jaietako maitasuna berpitz da-kien.

MIKEL ARGUIÑARENA MICHELINI

Gaur egun, Baionako bestak sobera handitu dira eta jende gehiegi etortzen da herri guzietatik. Gero eta konplikatua da antolaketa eta jarraipena ongi kudeatzea. Nire ustez, ez da gehiago plazera horra joatea. Honenbestez, urtero, hortik eskapatzen naiz.

MARITCHU ETXEBERRI

Galderari erantzuteko, ondoko bi hauei ihardetsi behar diegu: no-rentzat dira herriko pestak, eta zertarako? Denontzat izaten ahal dira, baina kanpotiarrek lekukoak baino 100 aldiz gehiago izanez gero, zer geldituko litzaieke hemengo bizilagunei eta kulturari? Oraingo eredua gurpil zoro bilakatu da: gero eta jende gehiago, orduan eta indarkeria gehiago gertatzen da; ondorioz, seguritate gehiagoren beharra senditzen da. Eta gehiago dena, sartzeko prezioa beti gora! Eredua aldatzekoa da, noski. Patxa Plazako pesta alternatiboak eredutzat har ditzagun.

XABI IRIART

Ez da hain fazila

Bidali zuen zalantzak, guztiok aberastuko gara eta.

AIZU! • *Ez da hain fazila*

Iztueta kalea 3, behea. 20001 DONOSTIA

Posta elektronikoa: euskaratu@aek.eus

Ale honetan hainbat kontu argitzen jarraituko dugu.

(*) Asteriskodunak gaizki daude, jakina.

galde **d**ebalde?



Kaixo. Zalantza sortu zaigu euskaltegian esaldi hauen inguruan:

Azterketa gaintZEN saiatuko naiz

Zuk azterketa gainti dezazun saiatuko naiz

Lehenengoan, bi aditzen subjektua bera da: ni. Halakoetan, aski garbi ikusten dugu -T(Z)EN behar duela. Bigarreanean, ordea, subjuntiboaren ordez nominalizazioa erabiliko bagenu, zer idatzi beharko genuke: -TZEN ala -TZEA? Hau da, zuk azterketa gaintZEA ala azterketa gaintZEN saiatuko naiz?

Izan ere, gure euskaltegiko batzuen iritziz, subjektua aldatu egiten denez -TZEA erabiliko beharko litzateke, baina beste batzuoari oso-oso arrotza egiten zaigu hori, eta -TZEN erabiliko genuke, zalantza izpirik gabe.

Gure ustez, saiatu aditzarekin -T(Z)EN nominalizazioa erabili behar da beti, saiatu aditzak ZERTAN galderari erantzuten diolako, subjektua eta ekintzaren hartzailea edozein direlarik ere. Honela, esaterako:

- Azterketa gaindiTZEN saiatuko naiz. (ZERTAN saiatuko naiz? (Ni) azterketa gaindiTZEN saiatuko naiz)
- Zuk azterketa gaindi dezazun/zuk azterketa gainditzen saiatuko naiz. (ZERTAN saiatuko naiz? Zuk azterketa gainditzen)

Adibide gehiago bilatu ditugu, zuri erantzuteko ez ezik, gure ustea berresteko ere:

Orotariko Euskal Hiztegia, adibidez:

- SAIA GAITEAN ia ardoak eramana urak EKARTZEN digun.

(Edonola ere, adibide hori ez da sobera argia, hor zehar galdera baitugu, "ia" partikulak (ea, euskara batuan) nabarmentzen duen moduan).

Beste hauek, Internetetik hartuak, ez dira zehazki zure adibideari lotuak, baina bai nahikoak ohar gaitzen -T(Z)EA ez dela inon ageri, ez dela erabiltzen, antzeko kasuetan; bai, ordea, subjuntiboa edo, kasu bakanen batean, -T(Z)EN.

- Gero zuk zeuk aukeratu zeure bidea, baina gutxienez NI SAIATU NAIZ ZUK argi EDUKI DEZAZUN erakutsi nahi nizuna.

- Baina SAIATU NAIZ ZUK EZER JAKIN EZ ZENEZAN.

- SAIATU DA NIK aurretik esandakoa UKA DEZADAN.

- SAIATU GARA HAI EK erlaxatzen, oso urduri zeudelako.

Azkena, dena den, ez da erraza interpretatzen, bi esanahi (apur bat ezberdinak) izan baititzake: *gu saiatu gara haiek* (beren kabuz) *lasai daitezen* edo *gu saiatu gara* (guk) *haiek lasaitzen?* Nolanahi ere, guk ez genuke aukeratuko, ezain kasutan, **Gu saiatu gara haiek lasaitzea*.




Jakin-minez, adimen artifizialari (Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile neuronalari, hain zuzen) zuen esaldia gaztelaniatik itzultzeko eskatu diogu. Hauxe haren erantzuna, geurearen ildotik:

Yo he intentado que tú apruebes el examen → Ni saiatu naiz zuk azterketa gainditzen.

Amaitzeko, ez da komeni gauzak nahastea: aditz batzuek ("nahi izan", kasu) oso erabilera ezberdina dute indikatiboan eta subjuntiboan (etxera joan nahi dut / zu etxera joaTEA (joan zaitezten) nahi dut), baina ez da beti horrela; ez, behintzat, "saiatu" aditzarekin, tradizioari begiratuta, jakina.

Idatzi hitz bakoitza dagokion tokian.
Gaia: ANIMALIA BATZUK.



3 HIZKI

IDI
SAI
USO

4 HIZKI

FOKA
KAIO
KATU
MIRU
OILO
OTSO
PUMA
SAGU
ZOZO

5 HIZKI

AKURI
AZERI
BALEA
BISOI
HARTZ
KOALA
LEHOI
LLAMA
OILAR
OREIN
OSTRA
SATOR
TIGRE
UNTXI
ZAKUR

6 HIZKI

AHUNTZ
BUFALO
GAMELU
GORILA
JIRAFa
KOIOTE

7 HIZKI

ARRATOI
BISONTE
DORTOKA
GEPARDO
KANGURU
MAPATXE
MARMOKA
MARMOTA
OSTRUKA
OZELOTE
SAGUZAR
TXIMINO
ZIKOINA

8 HIZKI

ELEFANTE
KAMALEOI

9 HIZKI


KROKODILO
SUGANDILA

10 HIZKI

ERRINOZERO
HIPOPOTAMO
~~LEHOINABAR~~

Hiztegia erotu egin zaigu, lagunduko al diguzu hitzak dagozkien definizioekin lotzen?

- | | |
|---------|---------------------------------------------------------------|
| BASARAN | 1. Hildakoak ehorzten diren leku. |
| ZUBI | 2. Etxe baten azpian dagoen gela edo toki. |
| ERLOJU | 3. Patxarana egiteko balio duen fruitu txiki. |
| HILERRI | 4. Itsasoan bizi den ugaztun handi. |
| ERRUKI | 5. Norbaitek sortutako alegiazko kontakizun. |
| SOTO | 6. Ibai baten bi aldeak lotzen dituen eraikin mota. |
| IPUIN | 7. Oso preziatua dugun perretxiko mota handi. |
| ESTEKA | 8. Zer ordutan bizi garen jakiten laguntzen digun tresna. |
| ONDDO | 9. Interneten erabiltzen den fitxategi arteko lotura. |
| BALEA | 10. Norbaitek pena ematen digunean nabaritzen dugun sentimen. |



Letra Zopa

SUKALDEAN



a tsotitza O satu



Irudi bakoitzaren izena dagokion lekuan jarrita, atsoitz bat irakurriko duzu.



hitz katea



Lerro batetik bestera hizki bakar bat aldatuta, lehen hitzetik seigarrenera helduko zara. Errazago iristeko, hirugarren lerroko hitzaren definizioa duzu.

3. Kolore argi baten izena.

1	H	A	S	I
2				
3				
4				
5				
6	G	O	N	A

Sinonimoak ezkondu

Sinonimoak ezkondu, ea asmatzen duzun nor den alargun bakarra.

IREKI

GORAIPAMEN

LAN

BEHAR

EMAKUME

MENDE

SAIL

ATAL

GURA

NAHI

LAUDORIO

GORAIPAMEN

HAUR


UME

GIZALDI

ZABALDU

LEHIA

EMAZTE



egia ala gezurra

Aldizkaria irakurri ondoren, esaguzu honako esaldiak egia ala gezurra diren.

1. San Prudentzio biribilguneko Sanprubusa taberna egunero irekitzen dute. e g
2. Tabernako bezero gehienak ez dira bidaiariak izaten. e g
3. Amagoia Mujikak beldur handia dio adimen artifizialari. e g
4. Mujikaren ustez, *Berria* egunkaria euskarak aurrera egiteko tresna bat da. e g
5. Altxa Burua! ekimenaren helburua da gazteek ordenagailuak arduraz erabiltzen ikastea. e g
6. Altxa Burua! ekimenari esker, nerabeek azterketa bat gainditu behar dute sakelakoa lortzeko. e g
7. Bernart Etxepare idazleari zor dio izena Etxepare Euskal Institutuak. e g
8. Etxepare Institutuari esker, 35 euskal etxetan eskaintzen dituzte euskara eskolak. e g
9. Seaskaren Baionako lizeoko barnetegian, ikasleen % 25 inguruk hartzen dute aterpe. e g
10. Udan, Baionako lizeoko barnetegia ikasleen udalekuak egiteko baliatzen dute. e g

♈ ARIES martxoak 21-apirilak 20

Erne! "Komunera joan dezaket?" galdetzen duzun baikoitzean, euskaltzain batek puzker ozena botatzen du, nahi gabe, Fonetika batzordearen bilera batean.

♉ TAURUS apirilak 21-maiatzak 20

Euskaltegian, ezkerreko ikaskidea oso jatorra da, eta eskuintekoaren besazpiei kiratsa dari. Bietako baten zerbait kutsatuko zaizu aurten (badaezpada, dutxatu egunero).

♊ GEMINI maiatzak 21-ekainak 20

Ea metaforak balio duen: hatzak ilargia seinalatzen duenean, hatzeko azazkaleko krakari erreparatzea, horixe da, gutxi gorabehera, astrologian sinestea.

♋ CANCER ekainak 21-uztailak 20

Aldizkari eta egunkari askotan, adimen artifiziala erabiltzen hasi dira horoskopoa egiteko. Lasai, AIZU!koan halakorik ez: hemen ez adimen ez artifizial.

♌ LEO uztailak 21-abuztuak 20

"Zer nahiago duzu, astrologo ona ala euskalduna?" galdetzen badizute, erantzun hau: AIZU!koa ona eta euskalduna da; ergelak detektatzen espezialista, gainera.

♍ VIRGO abuztuak 21-irailak 20

Izarrei baino, inguruari begiratuta ikusi dudanarengatik, greba egiteak ez duela ezertarako balio esatea astrologia sinesgarria dela esatea bezala da.

♎ LIBRA irailak 20-urriak 21

Jan ditzagun aberats guztiak. Ez dezagun geure burua engainatu: horrela ez da gosea amaituko munduan, ezta pobrezia ere, baina mundua askoz hobea izango da, ziur.

♏ SCORPIUS urriak 20-azaroak 21

Dinosauroak ez ziren desagertu: museoetan egon beharko lukete, baina oraindik ere mordo dago lantokietan, enpresetan eta abarretan. Horientzat ez dago meteoritorik.

♐ SAGITTARIUS azaroak 20-abenduak 21

Astrologorik traketsena ere fidagarriagoa da beti irribarrez datorkizun edozein ele zuri baino. Horiek gurasoak ere salduko lituzketen komertzialak dira, ez besterik.

♑ CAPRICORNUS abenduak 20-urtarrilak 21

Gal ezazu itxaropen oro: euskaltegian ez duzu ligatuko. Hori bai, euskara zuzenean ligatzeari "nesketan/mutiletan egitea" esaten zaiola ikasiko duzu.

♒ AQUARIUS urtarrilak 20-otsailak 21

Astrologian, dena da logikoa. Esaterako, astrologiak astronomiarekin zerikusia duela esaten hasten denak ipurtzuloa zulo beltz izendatzen amaitu ohi du.

♓ PISCES otsailak 20-martxoak 21

Ez gutxietsi sekula astrologia. Egunero teleskopiotik begira eta begira, etorkizuna iragarri dut: betaurrekoak erosiko ditut, presbizia dudala ohartu naizelako.

Logika jokoak 1+1=2

Bost lagun hauek hainbat jardueratan aritzen dira astelehenetik ostiralera, beren zaletasunaren arabera. Zer egiten du bakoitzak, zein egunetan eta zenbat orduz?


IZENA	JARDUERA	ASTEKO EGUNA	ORDUAK

1. Zaletasunari denbora gutxien eskaintzen diona astean ordubetez aritzen da; gehien jarduten duena, lau orduz.
2. Haritzek yoga egiten du, baina ez bi orduz, ezta lau orduz ere.
3. Nekanek hiru ordu eskaintzen dizkio jarduerari, yoga egiten duenak bezala.
4. Mikelek ostegunak aukeratu ditu gustura aritzeko, baina ingelesa ikasten duena baino bi ordu gutxiagoz.

5. Nekanek euskara ikasten duenak baino ordubete gutxiago eskaintzen dio bere jarduerari, hark baino bi egun geroago.
6. Karmelek ez du pilates egiten, eta yoga egiten duena baino ordubete gutxiago aritzen da bere jardueran, hura baino hiru egun lehenago.
7. Miren ez da igeri egitera joaten, ezta pilatesera ere.
8. Ingeles akademia asteazkenetan soilik irekitzen dute, hiru orduko eskola eskaintzeko.



Tiaqo-ROSADO-UNSPLASH



1. Donostiako 71. Zinemaldian zein euskal zuzendarik irabazi du Urrezko Maskorra, *O corno* filmarengatik?

- a) Estibaliz Urresolak
- b) Jaione Cambordak
- c) Iratxe Fresnedak

2. Zein bi herritako lurrek egiten dute bat Izpegiko lepoan?

- a) Ainhoa eta Urdazubikoek
- b) Baigorri eta Baztangoek
- c) Sara eta Zugarramurdikoek

3. Perun topatu duten suge espezie berri bati izena jartzerakoan, Harrison Ford omendu nahi izan dute aurkitu dutenek. Nola izendatu dute?

- a) *Tachymenoides harrisonfordi*
- b) *Viperidae indianajonesis*
- c) *Colubroidea hansoloe*

4. Eta zein izen jarri diote Zestoako (Gipuzkoa) Astui koban 2013an topatu, baina berriki katalogatu duten armiarma espezieari?

- a) *Leptoneta giputxi*
- b) *Arachnida zestous*
- c) *Nephila lintontauni*

5. Norbaitek harpa jotzea gustuko badu, zer gustatzen zaio?

- a) Musika jotzea
- b) Adarra jotzea edo burla egitea
- c) Alferkerian ibiltzea

6. Indian, herrialdearen izena aldatzea aztertzen ari dira. Aldatzen badute, zein izen hartuko du?

- a) Hindustan
- b) Gurjara
- c) Bharat

7. UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea da. Biztanleen % 70 baino gehiago euskaldunak dituzten herriek parte har dezakete bertan. Abenduan Zeanuri batzen zaionean, zenbat herri izango dira UEMAKo kide?

- a) 98
- b) 100
- c) 102

8. Zein motatako jokoa da hiru txirlo izenekoa?

- a) Karta jokoa
- b) Bola jokoa
- c) Hitz jokoa

9. Non amaitu zen 22. Korrika?

- a) Bilbon
- b) Iruñean
- c) Donostian

10. "Jainkoak gerra sortu zuen estatubatuarek geografia ikas zezaten". Nor jotzen da aipu horren egiletzat?

- a) Eduardo Galeano
- b) Mark Twain
- c) Alexandre Dumas

11. Arabako administrazioa udalerriz gaindiko zazpi eskualde erakundetan dago antolatuta.

Nola esaten zaie erakunde horiei?

- a) Kuadrilla
- b) Merindade
- c) Barrendegi

12. Nola du izena AIZU!ko horoskopoa egiten duen astrologoak?

- a) Elvis Constello
- b) Ziri Stardust
- c) Fidel Astro

13. Zein saio aurkezten ari da aurten ETB1en Mirari Martiarena kazetari, gidoilari eta umorista?

- a) *Hitzetik hortzera*
- b) *Mihiluze*
- c) *Lotsagabeak*

14. Non du jatorria kakaoak?

- a) Afrikako erdialdean
- b) Asiako hego-ekialdean
- c) Hego Amerikan

15. Nork irabazi du Etxepare-Laboral Kutxa sariaren 9. edizioa, Miren Agur Meaberen *Hezurren erretura* ingelesera itzultzeagatik?

- a) Amaia Apalauzak
- b) Amaia Gabantxok
- c) Danele Sarriugartek


16. Xabier Leteren *Gizon arruntaren koplak* izeneko abestian, une batean dio Realak atzo galdu egin zuela. Zein izan zen partidaren emaitza, bertsoaren arabera?

- a) Kuartro-uno
- b) Lau eta bat
- c) Ez dago halako bertsorik, aspaldian Realak ez duelako partidarik galdu

17. Nola amaitzen da esaera zaharra? *Nagusi askoren astoa...*

- a) *...asto baino, mandoa*
- b) *...inutil askoa*
- c) *...goseak hil*

* Larrazken, udazken edo udagoienarekin lotzen ditugun hitz batzuk.

	Lurrin		Hegazti harrapari		*	
	*		Jarduera fisikoa		*	
	Adi ezak!					
*		*	Zelan, nola			
Osagai bakarreko		Mailegu	Neu			
				Lotan		Bokal mehea
				Nasa		4. hil
Nahi bizia, gutizia						
Zuhaitz mota						2 bokal
						Oxigenoa
			Bokala		Eskaini	
			Automatak		Kanpo, landa	
Edatekoa						Ikastaroen hasieran
Putre						Pozoia
			Bokal biribila		Gironako ibaia	
			Bokala		Oinarrizko edaria	
						Zoritxar
Maiz, sarri, askotan		Ezin aipa daiteke			Du, niri	
		Alabaren senar			Amai	
			*			
			Barazki hostotsua			
Bokala		Gipuzkoako udalerria				1000
*		Zizaren erdian				Sodioa
				Luzera neurria		
				Iodoa		
Izatearen muina						Baiezko eta ezezko galderetan

Lauki lerroa

Definizioak bete ondoren, idatzi hizki bakoitza dagokion laukitxoan eta ETS taldeak *Abuela maitea*-ri eskainitako kantaren zati bat irakurriko duzu, *Guretzat* diskotik (Baga-Biga, 2022) hartua.

1	2	3	4	5		6	7	8	9	10	11	
		12	13	14	15	16	17	K, 18		19	20	21
22	23	24			25	26	27		28	29	30	31
32	33	34			35	36	37	38	39	40		41
42	43	44		45	46	47		E	49	50	51	52
53	54			55	56	57	58	59	60	61		62
63	64	65			66	67	68	69	70	71	72	73
74												

1. Argitasunaren aurkako.

23 3 47 54 16 61 13 63 57

2. Erokeria.

8 59 64 71 14 67 70 17 9

3. Harresiz eta dorrez babestu eta sendotutako eraikin.

41 7 50 46 65 22 11

4. Orga.

62 5 R 55 45

5. Nahasmendu.

29 19 51 43 72 15 60 73

6. Jainkoaren deia jasotzen dutenek omen daukaten joera.

58 20 27 38 25 69 O

7. Haztearen ekintza.

1 A 37 24 26 74 44 2

8. Jendartean bizitzeagatik ditugun arauetikiko begirune.

52 21 32 A 39 12 68 36

9. Larruazalean zabaltzen den gai koipetsu.

33 30 56 6 28 53

10. Nolakotasunean berdintasuna adierazteko erabiltzen den hitz.

35 42 10 40 31 N

11. Nobedade hitzaren kontsonanteak, ordena horretan.

34 66 4 48

toki ezezaguna



PIXABAY



Ba al dakizu zein den ezkeraldeko irudian azaltzen den lekua? Hala bada, joan aizu.eus webgunera, eta erantzun azaroaren 20a baino lehen. Asmatuz gero, sari baten zozketan parte hartuko duzu! Animo, oso erraza da eta!

pertsonaia ezkutua



- Bilbon jaio zen, 1930ean, baina urtebete zuela erbestera joan zen familiarekin, Mexikora, zehazki.
- Kirolaria, tranpolin jauzian aritu izan da bai gaztetan bai zahartzaroan, Master kategorian.
- Olinpiar Jokoetan lehiatu zen lehen emakume euskalduna da: Londresen, 1948an, Mexikoko ordezkari.
- Guztira, 300 domina baino gehiago lortu ditu bere kirol ibilbidean.

Dagoeneko, badakizu zein den, ezta? Bada, joan aizu.eus webgunera, eta erantzun azaroaren 20a baino lehen. Asmatuz gero, sari baten zozketan parte hartuko duzu!

Saridunak!




toki ezezaguna: USURBIL.

Sariduna: MARIJO IRASTORZA ELIZONDO.

pertsonaia ezkutua: JOANE SOMARRIBA.

Sariduna: MADDI NORIEGA ZALDUA.


hitz gurutzatuak



hiztegi e roa

- HILERRI.
- SOTO.
- BASARAN.
- BALEA.
- IPUIN.
- ZUBI.
- ONDDO.
- ERLOJU.
- ESTEKA.
- ERRUKI.

letra zopa



atsotitza O satu

JAIO, DENOK LARRUGORRI.

Katu, uso, erratz, enbor, sakelako, liburu, esku, leiho, pitxer.

hitz katea

- HASI.
- HARI.
- HORI.
- GORI.
- GORA.
- GONA.

Sinonimoak Ezkondu

IREKI-ZABALDU. LAN-BEHAR. EMAKUME-EMAZTE. SAIL-ATAL. GURA-NAHI. LAUDORIO-GORAIPAMEN. HAUR-UME. GIZALDI-MENDE. LEHIA.

egia ala gezurra

- g;
- e;
- g;
- e;
- g;
- g;
- e;
- g;
- e;
- g.

logika jokoak

Haritz, yoga, ostirala, hiru ordu. Nekane, ingelesa, asteazkena, hiru ordu.

Mikel, pilates, osteguna, ordubete. Karmele, igeriketa, astearta, bi ordu.

Miren, euskara, astelehena, lau ordu.

hamazazpi baitz!

- b;
- b;
- a;
- a;
- b;
- c;
- c;
- b;
- c;
- b;
- a;
- b;
- a;
- c;
- b;
- a;
- c.

hitz gezidunak

		U	M	B				
		E	S	K	O	L	A	
		A	I	Z	A	K		
		G	I	R	O	N	A	
	H	E	N	O	L	A	Z	
B	A	K	U	N	L	O	I	
	I	R	R	I	K	A	A	O
	I	Z	E	I	A	O	P	A
	E	D	A	R	I	A	I	K
S	A	I	O	T	E	R		
		T	A	B	U	D	I	T
U	S	U	O	R	B	E	L	A
	U	A	T	A	U	N	M	
E	H	I	Z	A	K	A	N	A
	I	Z	A	K	I	A	A	L

lauki lerroa

HELDU NAZAZU ESKUTIK, SOILIK ZUK DAKIZUN BEZALA. GELDITU DEZAGUN DENBORA GURE BEGIRADAN.

- Iluntasun;
- Zorakeria;
- Gaztelu;
- Gurdi;
- Asaldura;
- Bokazio;
- Hazkunde;
- Gizalege;
- Ukendu;
- Bezain;
- NBDD.


Nerabeek lehen **sakelakoa**¹ edukitzeko adina atzeratzeko asmoz, ekimen indartsua osatzen ari dira Tolosan. Gurasoak, herriko hiru ikastetxeak (Herrikide ikastetxea, Laskorain ikastola eta Samaniego ikastetxea), Udala eta hainbat saltoki elkarlanean batu dira, eta ekimenak **oihartzun**² ikaragarria izan du bai Euskal Herrian bai hemendik kanpo. **Hausnarketa**³ prozesua abiatu izanarekin konforme dira, eta, pixkanaka bada ere, lehen sakelakoa edukitzeko adina atzeratzea lortzen ari dira.

1. **Sakelako**: *teléfono móvil (es), téléphone mobile (fr).*

2. **Oihartzun**: *repercusión (es), répercussion (fr).*

3. **Hausnarketa**: *reflexión (es), réflexion (fr).*

Altxa burua!!!



Lierni Armendariz, Ixiar Arana eta Lurdes Oiarzabal. Andoni URBISTONDO.



Altxa Burua! hausnarketarako taldea da. Hainbat gurasok sortu zuten Tolosan, beren seme-alabek sakelakoari begira denbora luzea ematen zutela **jabetuta**¹. Pantailari begiratzeari uzteko, "altxa burua!" esaten hasi ziren txantxetan, eta taldeari izena jartzerakoan bi hitz horiek hautatu zituzten. Arrakasta polita, edonork "altxa burua" entzun eta **di-da**² jasotzen baitu burua.

Lierni Armendariz, Ixiar Arana eta Lurdes Oiarzabal elkarteak kideak dira, tolosarrak eta 10-13 urte arteko nerabeen gurasoak hirurak. "Gure haurrak DBHko 1. mailara iristear zirela ohartu ginen orduan hasten direla eskuko telefonoa eskatzen, 12 urterekin, alegia. Hainbat guraso ez geunden ados egoerarekin eta, Miren Ros Zarauzko Bidelagun elkarteak kidearen laguntzarekin, guraso eskolaren birtatez hasi ginen sakelakoa emateko une hori pixkanaka nola atzeratu aztertzen" dio Armendarizek.

Miren Ros eta Bidelagun elkarteak ekimen honen **aitzindariak**³ dira. 2019az geroztik, herri askotako ikastetxeetako aholkulari profesional ari da Ros, gurasoei nola jokatu behar duten erakusten: "Egun, 40 ikastetxe edo herri baino gehiago ari dira sakelakoen arazoa nola landu eta kudeatu behar den aztertzen, eta kopuru hori gero eta handiago izango da". Rosi bere jarduna zergatik hasi zuen galdetuta, hitz polita bota du: "Esperantza. Gurasoentzat, nerabeentzat, ikastolentzat... Jendartearentzat, azken finean".

IRITSI EZINIK

Altxa Burua! taldearen ekimenak sekulako oihartzuna izan du komunikabideetan, eta taldeko kideak eskaera guztiei erantzun ezinik dabilta. Armendarizek dioenez, "hitza diak ematen hasi ginenean eta, perretxikoak bezala hedatu zen gure ekimena: Ibarra, Hernani, Usurbil, Azkoitia-Azpeitia aldean...". Herri askok laguntza eskatu zieten, eta komunikabideena **demasa**¹³ izan omen da: "Espainiako telebista kate askok deitu digute (La 1, La Sexta...) Euskal Herriko hedabideek, La Vanguardia eta Diario de Mallorca kazetek...". Ekimena zabaltzea ona dela jakin arren, hainbeste deirekin **goia jotzen**¹⁴ hasiak omen dira.

Tolosan, hainbat aholku jaso ondoren, diagnosis egin zuten eskolan: zenbat haurrek zuten sakelakoa, zenbatek ez... Oiarzabalen hitzetan, "Rosek taldearen indarra nabarmentzen du beti. Hau da, haurrak ez du sakelakoaren beharrik sumatzen, ondokoak ez baldin badauka". Herriko hiru ikastetxeak elkartu, eta Udalera jo zutela azaldu du Aranak: "Han, hasieratik eman digute babesa: ekimena zabaltzeko, aretoak lortzeko, hitza diak antolatzeko...". Herriko zenbait dendak jarri zuten hirugarren hanka. Izan ere, nerabeak, **zernahi**⁴ gertatuko balitz eta sakelakorik gabe baleude, saltokiotan sartzea eta gurasoei deitzea onartu zuten. 'Gurea erabili dezakezu' irakur daitekeen **afixa**⁵ gorria dute ekimenera batu diren dendek.

Eskoletan, konpromiso sinadurak antolatzen hasi ziren. Ikasleei, modu anonimoan, sakelakoa izateko eskaera hilabete batzuk atzeratzeko eskatu zieten, ordenagailu bidez. "Aurrena, hiru hilabetez; ondoren, Aste Santura arte... Bideotxo bat ere egin genuen Iker Galarzarekin eta haren taldearekin, Gure Zirkularekin, hain zuzen ere. Oso didaktikoa zen, umeak hezten saiatzeko" dio Armendarizek. Bideoa han eta hemen zabaldu ostean sortu zen olatua ez da geratu **oraino**⁶.

Oiarzabalen ahotan, "umeak babesteko nahia izan zen **txinparta**⁷. Heltzen utzi behar diegula sentitzen genuen,



sakelakoa eman aurretik. Hots, ume izaten utzi behar diegu, eta prestatuta daudenean sakelakoa eman. Gidabaimena eskuratzeko, 18 urte bete arte itxaron behar da, eta azterketa pare bat gainditu. Telefonoaren kasuan, guztiz kontrakoa da. Ematen diozu gailua umeari eta kudea dezala erabilera **bere kabuz**⁸. 12 urterekin!”.

AUTORITARISMOA EZ, AUTORITATEA BAI

Gurasoek ez dute lan errazik seme-alabekin, sakelakoa edukitzea nerabezaroko une kritikoa bihurtu baita. Autoritatearen eta autoritarismoaren artean aritu behar izan dira sarri, **kulunkan**⁹.

Emozionalki, martetar **samarrak**¹⁰ sentitu omen dira: “Umeak bizkorrek dira, eta edozer gertatuz gero, sakelakorik ez dutenez, ezin izango dizutela abisatu esaten dizute. **Es-**

Katerina HOLMES-PEXELS



tutzen¹¹ **iaioak**¹²

dira” dio Armendarizek, baina une jakin batean, autoritatearen printzipioa indarrean jarri behar da: “Arau batzuk daudela eta bete egin behar direla azaltzen diezu seme-alabei. Ez dute ulertzen, noski, eta arauak betetzeko gogorik ez dutela botatzen dizute. Arauak berriro azaltzen dizkiezu eta, uneren batean, ‘hauxe dago’ egoerara iristen zara. Haserretuko dira, frustrazioa sentituko dute, eta zigortzen ari zarela pentsatuko, baina heziketa prozesua da.”

Ekimenaren arrakasta sakelakoa lehen aldiz edukitze-ko adinari erreparatuta neurtu beharko litzateke, baina Oiarzabalek ez dio garrantzirik eman nahi zenbakiari: “Ez da zenbaki kontua, baina ekimenak erantzun ona duela sumatzen dugu, umeek gero eta beranduago dutelako sakelakoa lehen aldiz. Herrikide ikastetxean DBHko 1. mailako ikasleen artean inkesta eginda, telefonorik gabeko ikasleen kopurua % 5etik % 25era hazi da ikasturte batetik bestera”.

Finean ekimena eragina izaten ari da. “Altxa Burua! taldeak ekimena abiatu aurretik, sakelakoa LHko 6. mailan jasotzen zuten ikasleek. Ekimena sortu ostean, berriz, DBHko 1. mailara atzeratzen hasi da”, aipatu du, esaterako, Laskorain ikastolako zuzendari Ainhoa Artolazabalek. ●

1. **Jabetu:** konturatu, ohartu.
2. **Di-da:** oso azkar, ziztu bizian.
3. **Aitzindari:** precursor, -a (es), précurseur (fr).
4. **Zernahi:** edozer gauza.
5. **Afixa:** kartel.
6. **Oraino:** oraindik ere.
7. **Txinparta:** chispa (es), étincelle (fr).
8. **Nor(k) bere kabuz:** bakarrik, laguntzarik gabe.
9. **Kulunkan:** balanceándose (es), se balançant (fr).
10. **Samar:** pixka bat, nahiko, apur bat.
11. **Estutu:** apremiar (es), presser (fr).
12. **Iaio:** trebe, abil.
13. **Demas:** izugarrizko, egundoko, oso handi.
14. **Goia jo:** mugara heldu.

 ARGIA Azoka



Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu Bilboko
Mbolo Moya Doole
elkarteari.

Prezioa **28,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Hartuko dugu zerbait Sanprubusan?

Sanprubusa taberna 2019ko maiatzean ireki zuten Oñati, Bergara eta Arrasate elkartzen diren lekuan. Elorregi auzoan dago, San Prudentzio biribilguneko aparkalekuan, autobus geltokiaren atzean eta Gurutze Gorriaren postuaren ondoan. Jon Mujika Alberdik jarri zuen proiektua martxan, duela sei urte. Orain, berak eta Irene Chohan Madinabeitiak daramate aurrera.



Sanprubusa ez da ohiko taberna, autobus koloretsua bai- zik. Mujikak honela azaltzen du zergatik: *"Afari batean, au- rreko auzo alkateak aipatu zuen komunak falta zirela he- men. Debagoienako autobus askoren geralekua da hau, baita autoa partekatzen duten bidaiari askorentzako par- kinga ere. Nik kafetegia ere falta zela bota nuen, eta neuk jartzeko erantzun zidaten."*

Pentsatu eta egin. Lurra Oñatiko Udalarena denez, eta aparkalekua Gipuzkoako Foru Aldundiarena, bietan bai- menak eskatu, Euskotreni autobusa erosi, eta hura kafete- gi bihurtzen hasi zen, *"poliki-poliki: barrua egokitu, **altza- riak**¹ egin, kanpotik margotu..."*. Sei-zortzi hilabete eman zituen Mujikak autobusa **moldatzen**², baina denbora ge- hiago joan zitzaion burokrazia kontuetan.

Kafetegia izan arren, Sanprubusak gurpilak ditu eta ibili egiten da (horregatik egin behar izaten du ibilgailuen azterketa tekniko sei hilabetero), baina ezin da garraio publiko moduan erabili, *"hemen ezin dut jenderik eraman"*. Aparkalekuan ere ezin dute utzi; hala, egunero ekartzen eta eramaten dute, eta gauean ez dago tabernarik San Prudentzian: *"Goizeko 09:00ak aldera etortzen gara (astebu- ruan, 10:00ak aldera), eta iluntzeko 20:00ak arte edo aritzen gara lanean. Astartetik igandera, astelehenetan jai"*.

Denetik eskaintzen dute, baina *"aukera handirik gabe: zerbeza marka bakarra, plantxan presta daitezkeen pintxoak, tortillak..."*. Ostiral eta larunbatetan, auzoko baserri bateko ogia ere edukitzen dute salgai, eta gainerako egunetan Zubillaga auzoko okindegi bateko ogia eta **opilak**³: *"Ahal dugun guztietan, inguruko produktuak eskaintzen saiatzen gara, eta kafea **bidezko merkataritzakoa**⁴ da"*.

AUZOTARREN ELKARGUNEA

Sanprubusak arrakasta izan du, eta hortik bizi dira Mujika eta Chohan. Azkenean, auzoko taberna bihurtu da; izan ere, bidaiariak eskertu dute, bai, baina batez ere auzota- rrek eta ondotik pasatzen den bidegorriko ibiltariak: *"Le- hen, ez zuten elkar ezagutzen, eta hemen izan dute horreta- rako aukera. Pandemia garaian, herritik irten ezin ginenean, hemengo terrazan elkartzen ziren inguruko herrien artean **sakabanatuta**⁵ bizi diren familiak eta lagunak"*. Oñatiko bi- daiariak autobus aldaketa egin behar izaten dute askotan San Prudentzian, eta jende askok partekatzen du autoa, norberarena aparkalekuan utzita, *"baina horiek beti ibiltzen dira **presaka**⁶ eta ez dira hemen geratzen"*.

Autobus barruan, hasieran lau mahai prestatu zituz- ten arren, orain bi baino ez dituzte: *"Pandemia ostetik, jen-*

HORNIKUNTZA⁸

Sanprubusa tabernak eguzki plaken bitartez lort- zen du argindarra. Udan, nahikoa dute horrekin; ne- guan, ordea, gehiago behar dutenez, Gurutze Gorri- koek entxufea erabiltzen uzten diete: *"Oso ondo konpontzen gara haiekin, inoiz ez digute ezertarako **trabarik**⁹ jarri eta elkarri laguntzen diogu"*. Gainera, Sanprubusak urarentzako depositua ere badauka, baita ur zikinena ere. Komuna, berriz, duela gutxi lor- tu da San Prudentzio biribilgunean. Taberna ireki au- rreko eskaera da, *"duela 10 urte eskatu zen ofizialki le- hen aldiz, bus geltokia jarri zenean, baina oraintxe ipini dute, markesina berriarekin batera, nahiz eta oraindik itxita dagoen. Kostata izan bada ere, oso polita geratu dela aitortu beharra dago"* dio Mujikak. Azken batean, beraiek dioten moduan, *"zenbat eta gehiago txukun- du inguru guztia, denontzat hobe"*.

- 1. Altzari:** mobiliario (es), mobilier (fr).
- 2. Moldatu:** adaptar (es), aménager (fr).
- 3. Opilak:** bollería (es), viennoiserie (fr).
- 4. Bidezko merkataritza:** comercio justo (es), commerce juste (fr).
- 5. Sakabanatu:** diseminarse (es), (se) répandre (fr).
- 6. Presaka:** korrika, denborarik gabe.
- 7. Aterpe:** leku estali.
- 8. Hornikuntza:** provisión (es), provision (fr).
- 9. Traba:** arazo, eragozpen, oztopo.





*dea ez da barrura asko sartzen, eta atzeko partea orain biltegi moduan daukagu. Gehiena kanpoan zerbitzatzen dugu." Horretarako, lau mahaiko terraza daukate sarrera aurrean; eta, atzeko aldean, auzolanean egindako egurrezko sei mahai eta aulkiak: "Gainera, Gurutze Gorriko auzokideak oso ondo portatzen dira gurekin, eta euria egiten duenean beren **aterpea**⁷ uzten digute terraza jartzeko. Terrateka ekitaldiren bat antolatzen dugunean, kontzerturen bat edo, orduan ere uzten digute lekua. Artisan azokaren bat egin izan dugu, Sagardo Eguna ere bai, Olentzero Gabonetan... Nahiko ekitaldi inprobisatuak izaten dira, bururatu eta egin."*

Sanprubusa inguruko herrietako ekitaldiren batera eraman izan dute, baina ez dute gehiegi mugitu nahi, ohiko bezeroak ez nahasteko: "Askotan gonbidatzen gaituzte, baina ez gara gehiegi mugitzen. laz, adibidez, Bergarako Danbaka musika lehiaketara joan ginen, txosna izateko erraz munta daitekeelako hau, ordu erdian. Halere, hemen egoteko pentsatu zen eta hemen ibiltzen gara." ●



**Maialen R. Barcena**

Habana, Kuba, 1989

2008an etorri zen Habanatik Donostiara bizitzera eta, astirik galdu gabe, familian bi belaunaldi atzera galdutako euskara berreskuratzeari ekin zion. Berreskuratu eta transmititu, bai familia barruan bai familiatik kanpo: irakasle ikasketak egina, 2018tik irakaslea da Donostiako Amara auzoko AEK euskaltegian.

Atalaren protagonista guztien testigantzak:
<https://www.aek.eus/eu/bloga/zelan-euskaraz>

“Barnetegia erabakigarria da ikasleen bizitzan”

Nolatan iritsi zinen euskarara?

Hegazkinez, kar-kar! Etorri bezain pronto hasi nintzen euskara ikasten. Kuban, euskal komunitate batean murgilduta nengoen, baina guraso erdaldunak neuzkan. Etxean ez nuen euskara jaso; gure komunitateari esker jaso nuen zerbait. Hitz gutxi batzuk bakarrik nekizkien. Hortaz, hona uztailean iritsi eta urrian dagoeneko euskaltegian nintzen.

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Nolabait, jada erabakita zegoen nire bizitzan. Gurasoek ez zidaten transmititu euskara, ez zekitelako, baina euskararekiko maitasuna bai. Txiki-txikitatik. Beraz, gorputzak eskatzen zidan, automatikoki egin nuen. Nire **birraitona-amonak**¹ euskaldunak ziren, baina orduan galdu zen euskara familian. Bi belaunaldi behar izan ditugu berreskuratzeko. Neuk egin nuen, eta semea euskaldun zaharra dut. Familiarentzat altxorra izan da euskaldun zaharrak berreskuratzea.

Nolako prozesua izan zenuen?

Zoragarria, egia esan. Jolas moduan hartu nuen hasieratik eta asko disfrutatu nuen. Eskoletara joaten nintzen, gozatzen nuen, eta hortik kanpo beti saiatzen nintzen irratia entzuten, kalean adi entzuten, dendetan-eta euskaraz egiten... Bizitzen saiatzen nintzen, modu naturalean. Ez naiz gogor ikastekoa izan. Lau urte egin nituen euskaltegian, eta tartean bi barnetegi Arantzan. Barnetegiak funtsezkoak izan ziren nire burua askatzeko eta lotsa galtzeko. Barnetegia **erabakigarria**² da

ikasleen bizitzan. Eraldatzen zaitu, erabat. Euskara ikasleontzat, lotsa **zama**³ handia da, gaizki hitz egiteko beldurra gainean daramagu beti, baina nik lotsa han utzi nuen.

Zer izan da zailena zuretzat?

Lotsaren zama kentzea.

Eta errazena?

Beharrezko laguntza eskuratzea. Atzerritarra izanik Euskal Herrian euskara ikasten ari zarela diozunean, euskaldunek dena ematen dizute berehala laguntzeko. Askok eskertzen da. Zorte handia ere eduki nuen hemen, Amarako euskaltegian. Nik, adibidez, Koldo Alduntzin eta Aurea Sarasola irakasle izan nituen, eta beti sentituko naiz haien ikasle. Lehen irakasle eta orain lankide, etengabe ikasi dut haiekin.

Trikimailuren bat?

Ni euskararekin hasieratik maitemindu nintzen, eta pasioz egiten duzun edozer erraza da, egingarria, ez du aldaparik. Hortaz, gogoz eta ilusioz ikastea, zeure buruari oztoporik jarri gabe. Erraza dela sinetsiz gero, erraza da. Bestalde, funtsezkoa iruditzen zait umorearen bitartez ikastea, eta ikasteko prozesua jolas gisa hartzea. ●

1. **Birraitona-amonak:** *aitona-amonen gurasoak.*

2. **Erabakigarri:** *decisivo, -a (es), décisif, -ive (fr).*

3. **Zama:** *pisu.*

Bernat Etxepare lizeoa bakarra da Ipar Euskal Herrian euskaraz ikasteko. Baionan da, eta bertan Bigarren Hezkuntzako azken hiru urteak euskaraz egin nahi dituzten Iparraldeko ikasleak biltzen dira. Baina denak ez dira Baionatik hurbil bizi. Hori dela eta, egunero joan-etorria egin ezin duten ikasleek barnetegian pasatzen dute astea. Lizeoko lagunekin batera bizitzeko eta harreman estuagoak sortzeko **parada**² ederra da. Aurtengo udan, gainera, etxebizitza aurkitzeko zailtasunak dituzten **sasoikako langileei**³ ere ireki diete egoitza.

Barnetegia: lizeotar euskaldunen aterbe¹

1. **Aterbe:** *albergue (es), auberge (fr)*.

2. **Parada:** *aukera, abaguné, egokiera*.

3. **Sasoikako langile:** *trabajador, -a temporero, -a (es),
travailleur saisonnier (fr)*.

Ipar Euskal Herri osoko ia 500 ikaslek baino gehiagok ikasten dute Seaskaren Baionako lizeoan. Gehienek joan-etorria egiten dute egunero, **beren kasa**¹ edo autobusez. **Haatik**², ikasleen % 25 inguruk barnetegian igarotzen dituzte igandetik ostiralera bitarteko gauak. Gehienak Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasleak dira, jakina, baina badira Zugarramurditik eta Hendaiatik etorriak ere. Egoitzak 137 ikasle hartzen ditu, lau oheko 32 logelatan.

Elixabet Aizager lizeoko hezkuntza aholkularia da, eta berak ere oroimenez gogoratzen ditu barnetegian eman zituen urteak: *“Bizi esperientzia sakona da, **nerabezaro**³ betean, zure autonomia garatzera eta ahalduzera bultzatzen zaituelako. Kolektiboan bizitzera behartua zara, eta batzuetan muga izan daitekeena elkarbizitarako aukera ona bilaka daiteke”*. Euskararen erabilpenari begira ere, *“barnetegiko ikasle gehienak herri euskaldunetakoak dira eta, ondorioz, **arnasgune**⁴ moduko bat da; izan ere, erdara gero eta gehiago entzuten da gure lizeoan”*. Ikasle gehienak baserri eremutik datoz, eta Baionan bizitzera etortzen direnean gauza berriak ezagutzeko parada dute. *“Garraio publikoa hartu, lagunekin hondartzara joan edo hirian diren hamarnaka jardueratan parte hartzen dute barnetegiko ikasleek”* dio Aizagerrek.

IKASLEAK BEREN AUTONOMIAN

Barnetegian bat egin dute, besteak beste, Iholdiko Imanolek, Urruñako Itzalek eta Ainharbeko Mirrentxuk. Imanolek dioenez, *“beste barnetegietan ez bezala, gurean neskak eta mutikoak elkarrekin gara eta hori, ene ustez, hobereena da”*. Gainera, *“lizeoan sortzen ez diren harremanak barnetegian sortzen dira, ikasgelako girotik kanpo”*. Are gehiago, *“familia modukoa gara, eta hemen egiten dituzun lagunak ez dituzu sekula galduko”*. Horrez gain, *“herri **anitzetako**⁵ euskalkiak elkartzen dira hemen, eta inoiz entzun ez ditugun **hizkerak**⁶ ezagutzen ditugu: xiberra, Sarakoa, Hendaiakoa... Batzuk **aski**⁷ bereziak izan daitezke **hastapenean**⁸”* dio Imanolek.

Bestalde, barnetegian hainbat ekimen antolatzeko aukera dute ikasleek, Itzalen esanetan: *“Barnategia Sutan izeneko taldearekin, kirol txapelketak, Olentzero, inauteriak... antolatzen ditugu, eta, batzuetan, auzoko gizarte*



“BIZI ESPERIENTZIA SAKONA DA, NERABEZARO BETEAN, ZURE AUTONOMIA GARATZERA ETA AHALDUNTZERA BULTZATZEN ZAITUELAKO”

“BARNETEGIKO IKASLE GEHIENAK HERRI EUSKALDUNETAKOAK DIRA ETA, ONDORIOZ, ARNASGUNE MODUKO BAT DA”

ELIXABET AIZAGER, BERNAT ETXEPARE
LIZEOKO HEZKUNTZA AHOULKULARIA



Nagore zaintzailea, Imanol, Mirrentxu eta Itzalekin.





NEGUAN BARNETEGI, UDAN ATERPETXE

Uda garaian, ikasleak beren herrira itzultzen dira, baina aurten barnetegia ez da hutsik gelditu. Ipar Euskal Herria helmuga turistikoa garrantzitsua da, eta horrek etxebizitzaren prezioaren garestitzea eragiten du, baita egoera prekarioan diren sasoiakako langileen etorrera ere. Udan, 15.000 lanpostu sortzen dira. Hori dela eta, barnetegia sasoiakoko langileak aterpetzeko egoitza bilakatu dute, Ariztia izenekoa. Hur Gorostiaga Seaskaren zuzendariak azaldu duenez, “gure helburua ez da langile horien **bizkar**¹¹ aberastea; beraz, prezio merkea jarri dugu: hamabi euro gaueko. Baldintza da lan kontratu edo **hitzemate**¹² bat izatea”. Gainera, Gorostiagak dioenez, “**egoiliar**¹³ guztiak ez dira kanpokoak, batzuk bertakoak dira. Udan, beren etxetxabeek apartamentutik kanporatzen dituzte turistei garestiago alokatzeko”. Aurten, 30 egoiliar hartu dituzte udan. Horrez gain, Baionako fakultate parean Seaskak, ikasleentzako etxebizitza merkeak ireki ditu ikasturte honetan. Gorostigaren esanetan, “duela hainbat urte, Hotel des Basques izeneko hotelaren jabeak eraikina eman zion Seaskari, eta hor sortu ditugu hainbat ikasle apartamentu, merke alokatzeko helburuz”.

1. **Nor(k) bere kasa:** bakoitzak nahi/ahal duen bezala.
2. **Haatik:** sin embargo (es), cependant (fr).
3. **Nerabezaro:** adolescencia (es), adolescence (fr).
4. **Arnasgune:** nicho vital del euskera (es), niche vitale du basque (fr).
5. **Anitz:** asko, ugari.
6. **Hizkera:** hitz egiteko modu, mintzatzeko era.
7. **Aski:** nahiko.
8. **Hastapen:** hasiera.
9. **Preseski:** precisamente (es), précisément (fr).
10. **Gaualdi:** gau jai.
11. **-en bizkar:** a cuenta de (es), aux dépens de (fr).
12. **Hitzemate:** konpromiso.
13. **Egoiliar:** residente (es), résident, -e (fr).

AURTEN, UDA GARAIAN, BARNETEGIA SASOIKO LANGILEAK ATERPETZEKO EGOITZA BILAKATU DUTE

etxebizitzetako gazteak ere gonbidatzen ditugu”. Seaskaren lizeoaren parean, ZUP izeneko eraikin multzoa dago. Bertan, 3.500 gizarte apartamentu daude, eta Baionara etorritako familia etorkin anitz bizi dira. **Preseski**⁹, Mirentxuk azaldu digunez, “auzoko bizilagunekin harremanak indartzeko, Zuper Fête jaialdian parte hartzen dugu, adibidez. Hainbat tailer eta **gaualdi**¹⁰ partekatzen ditugu ZUPeko gazteekin”. ●

ilustratu



FOKU

‘Oso latza izan da’, Xabier Mendigurenen azken lana

Xabier Mendigurenek Joxe Arregi zizurkildarraren 1981eko atxiloketa eta osteko tortura eta erailketa hartu ditu oinarri Elkarrek argitaratutako liburu hau idazteko. Izenbururako ere, garai hartako euskal herritar askoren buruan **iltzatura**¹ geratu zen esaldia erabili du, Agirrek berak Carabanchelgo espetxeko erizaindegian esana. Torturaren **gordina**² begien bistan jartzearren, Arregiren gorpua hilobitik jaso, hilkutxatik atera eta argazkiak egin zizkioten Juan Kruz Unzurrunzagak eta Vicente Ameztoyk hilerriko **gorputegian**³. Bada, egiazko gertakariak bildu ditu Mendigurenek, bizirik jarraitzen duten lekukoak elkarriketatuta; halaber, protagonisten biografiak eraiki ditu kontakizuna ontzeko. Kronika izaerako narrazioa da, baina modu literarioan idatzia. Egilearen esanetan, “ez dut fikzioa idatzi, baina idazteko modua bada nobelistarena”



Irakurtzeko

MASKARA BATEN AITORTZA

Yukio Mishima
Itzulpena: Iker Alvarez
Igela, 2023



XX. mendeko idazle japoniar nabarmenetako baten maisulana. Kochan da protagonistea, gizarte japoniar inperial eta militaristatik **hezitako**⁴ nerabea. Inguruan dituen jarrera atzerakoi eta gogorrei aurre egin beharrean aurkitzen da bere homosexualitatea onartzeko. Iker Alvarezk zuzenean ekarri du japonieratik euskarara, euskal irakurleek aspaldiko partez goza dezaten berriz ere Mishimaren prosaz.



ANE LABAKA MAYOZ

da *Barraskiloek baino bat gehiago* (Erein) obraren egilea. Lehen pertsonan idatzi du, Sararen ikuspuntutik. Neskato protagonistak hamar urte ditu, eta gurasoak banandu egingo direla



FOKU

jakin duen unean abiatzen da kontakizuna. Idazleak, horrela, familia ereduaren eta maitatzeko moduen gainean hausnartu nahi izan du. Album ilustratua egitea zen Labakaren hasierako asmoa, baina azkenean nobela bihurtu da kontakizuna.

1. **Iltzatu:** *clavar (es), clouer (fr).*
2. **Gordin:** *crudeza (es), crudité (fr).*
3. **Gorputegi:** *morgue (es), morgue (fr).*
4. **Hezi:** *educar (es), éduquer (fr).*
5. **Gaiztakeria:** *malicia (es), méchanceté (fr).*
6. **Itzarri:** *esnatu.*

Peio Oihenartea etxaldean bizi da. Maite ditu laborari lana, natura eta Baigorriko bizimodua. Zorionsua da maite duen familiarekin eta lagunekin, baina bat-batean desagertu egin da, eta haren desagertze misterioak kezka sortu du. Gainera, Oihenartea ere arriskuan da. Istorio honek misterioa eta elkartasuna lotzen ditu, eta Ipar Euskal Herriko etxebizitza espekulazioaren arazoa agertzen du.

OIHENARTEA EZ HUNKI!

Arian irakurgai: A1
Bea Salaberri
Ilustrazioak: Adur Larrea
Elkar, 2023



SANTI LEONÉ

“Kafetegietan irakurtzen dut gustura”

Idazle bat? Julian Barnes.

Opari egiteko liburu bat? Bigarren eskuko libururen bat: Kipling-en *The Complete Supernatural Stories*, adibidez.

Irakurtzeko lekurik onena? Ez dakit onena den, baina nik kafetegietan irakurtzen dut gustura.

Zer gosaltzen duzu? Kafesnea.

Bestondoari aurre egiteko erremediorik onena? Umeak izatea.

Zein esaldi edo esakune errepikatzen duzu askotan?

“Ez dakit, bada”.

Zertan ez zaizu inporta gehiegitxo gastatzea?

Liburuetan. Gehiegitxo baino gehiago ere bai, batzuetan.

Norekin joango zinateke trago batzuk hartzera?

Joseph Roth-ekin (bizirik balego), baina irabaziko lidake edaten.

Pertsonaia historiko bat? J. Alfred Prufrock.

Zer dago traban zure etxean? Neu, gehienetan.

Joateko asmoa daukazu leku bat? Trieste.

Zure lehen mito erotikoa? Ornella Muti, *Flash Gordon* filmean.

Zure bertuterik onena? Jendeak irri egiten du nirekin (edo nitaz, ez dakit).

Zure akatsik handiena? Gaiztakeriarik⁵ eza, tontoa izateraino.

Besteengan errazen barkatzen duzuna? Nahi gabeko hanka sartzeak.

Eduki nahiko zenukeen eta ez daukazu dohaina? Musikarako belarri ona.

Badakizu aureskua dantzatzen? Badakit ibiltzen. Hortik harago ez dakit zangoak eta besoak koordinatzen.

Lurpera, erraustu ala zure gorpua zientzia

ikerketarako? Erraustu. Ez nuke hilkutxa batean edo laborategi bateko mahai gainean bat-batean **itzarri**⁶ nahi.

PRAKTIKATU
ONLINE
EUSKARAZ
Erraza da

Zure ordenagailu, tablet edo telefonotik, beste euskaldun batzuekin hitz egiteko mintzapraktika taldeak.

izen-ematea zabalik azaroaren 30era arte.

www.praktikatu.eus



**EMAN IZENA
DOHAINIK DA!**

belarrion




FOKU

'Harri Herri Har': Amoranteren lan berria, herri musikan oinarritua

Iban Urizar *Amoranteren Harri Herri Har* lan berria iraupen laburreko bi diskoren eta lan luze baten ostean dator. Aurrekoa **legez**¹, Forbidden Colours diskoetxearekin argitaratu du, eta bertan kanpaiak, malenkonia, festa, animaliak eta poesia ageri dira. Bestak beste, Harkaitz Cano eta Odei Barroso izan ditu lagun (lehenak *Erreka* kantaren hitzak idatzi ditu, eta bigarrenak, *Ez dira* izenekoarenak), baita Bilintx bera ere (*Pobrearen suertia* bertso **sor-tatik**² atera du abestia Amorantek, gizartea ez dela hainbeste aldatu erakusteko). Musikari bikainak ere eduki ditu ondoan: Felix Buff eta Hasier Oleaga bateria jotzaileak, Hatxeren pianoa, Xabier Zeberioaren hariak, Los Sara Fontan bikoa, Amaia Mirandaren gitarra... Kantak Bilboko Mala Estrata estudioan grabatu ditu Aitor Etxebarriak, Azpeitiko Dinamoan grabatutako *Ez dira* izan ezik.

LIHER taldeak, etenaldi luzea egingo duela iragarri ondoren, hiru kontzertu eskainiko ditu jarraitzaileak agurtzeko: urtarilaren 26an, Gasteizen; otsailaren 15ean, Bilbon; eta martxoaren 2an, Donostian. Taldea bere esentziara itzuli zen joan den irailean, hardcorea eta punka nahasten dituen *Hortzak* kantuarekin. Abesti frenetikoak, otsailean plazaratu zuen *Eramaten* balada melodiko progresiboaren ondoan. Bi abestiokin osatuko duten zazpi **hazbete-ko**³ biniloa, *Versus*, Durangoko Azokarako egongo da prest.




1. **Legez:** bezala.
2. **Sorta:** multzo, zenbait, batzuk.
3. **Hazbete:** *pulgada* (es), *pouce* (fr).
4. **Berrespen:** *confirmación* (es), *confirmation* (fr).
5. **Bateratu:** *bat egin, batu, elkartu*.

Entzut lekol

ADORETUA

Verde Prato
PlanBrecords, 2023

Verde Pratok zazpi abestiz osatu du bere azken albuma. Argitsua da, musikariaren aurreko lanek izan ez duten moduko argia du. Izan ere, disko honetan alde batera utzi du aurreko proposamenen kontzeptualizazioa, esperientzia pertsonalak eta gai unibertsalak lantzeko, hala nola maitasuna, erotismoa, desengainua, familia, haurtzaroa eta munduarekiko topaketa, bakardadea, ametsak... Artistaren eboluzioaren **berrespena**⁴.



Hermosak eta Mendizabalek, XXI. mendeko euskal musika tradizionala modernitatearekin lotzeko, bi musikari handi izan dituzte lagun: Carles Benavent eta Tino di Geraldo. Eraitza harrigarria lortu dute folkloreak, jazzaren eta musika klasikoaren arteko distantziakidetasunari eutsiz; baita ere euskal eta iberiar penintsulako erritmoak eta melodiak, jazzaren askatasuna eta musika klasikoaren konplexutasuna **bateratuz**⁵.



SUSTRAIEN MATXINADA

Gorka Hermosa/Garikoitz Mendizabal
Elkar, 2023

Disko gogokoenak



GOTZON HERMOSILLA



TXUMA MURUGARREN

Gautegia


Gaztelupeko Hotsak, 2023

Caveren hitzak Murugarrenen ahotsean

Bagenekien Txuma Murugarren oso **iaioa**¹ dela ingelesezko kantuak euskarara ekartzen; ederki erakutsi zuen Lou Reeden omenez 2014an argitaratutako disko hartan, orduan Murugarreni egokitu baitzitzaion Reeden kantuen testuak euskarara moldatzea. *Gautegia* izeneko disko honetan berdin egin du, baina oraingoan Nick Cave aukeratuta. Zehazki, 2003an plazaratutako *Nocturama* diskotik zenbait kantu euskaratu zituen Murugarrenek 2014an, Izar & Star izeneko egitarauaren barruan zuzenean kantatzeko, eta orain bertsio haiek grabatu, eta disko batean eskaini dizkigu. Emaizta gustagarria egingo zaie bai Caveren zaleei bai Murugarrenen ibilbidearen jarraitzaileei.

1. **iaio**: *hábil* (es), *habile* (fr).

Musikaria mintzo



LIBE GARCIA DE KORTAZAR

Musikari (edo talde) bat? Orbel.

Opari egiteko disko bat? *This is a Photograph* (Kevin Morby).

Musika entzuteko lekurik onena? Etxeko egongelako butaka.

Zer gosaltzen duzu? Zerealak jogurtarekin.

Zer galtzen zaizu beti? Betaurrekoak.

Zein esaldi edo esakune errepikatzen duzu askotan? "Ai, ama!".

Zertan ez zaizu inporta gehiegixto gastatzea? Arrain on batean.

Zure lehen mito erotikoa? River Phoenix.

Pertsonaia historiko bat? Tina Turner.

Bestondoari aurre egiteko erremediorik onena? Lo egitea.

Zure bertuterik handiena? Sentiberatasuna.

Eta lagunengan gehien estimatzen duzuna? Eskuzabaltasuna.

Zer eramango zenuke uharte huts batera? Nire burkoa eta edredoa.


Azpea upeltegia



Nekazaritza
ekologikoa

Ardo salmenta
eta jatetxea
aurrez eskatuta

Iturbero bidea 2/9 • Irunberri • www.bodegasazpea.com
948 88 04 33 • 661 09 09 11 • info@bodegasazpea.com



www. **erimasl**.com

ESKOLA ETA BULEGO

MATERIALA ETA
ALTZARIAK

aek-ren
hornitzaileak



'Primeran' plataforma digitala martxan da

Abian da *Primeran*, euskara eta euskal edukiak zabaltzeko EITBk sorturiko streaming plataforma. 3.000 atal edo film baino gehiago ditu, ia guztiak euskaraz, euskarazko audioekin edo euskarazko azpitoluekin lagunduak: euskal produkzioko eta nazioarteko telesailak, filmak, dokumentalak, haurrentzako edukiak, musika... Gainera, plataformarako propio sortutako eduki esklusiboak izango ditu. Adibidez, irailean estreinatutako *Itxaso* telesaila. Mundu osoan ikus daitezke plataformako edukiak. Doakoa da eta www.primeran.eus webgunean erabil daiteke. Aplikazioa SmartTV gehienetan eta Google Play eta iOS gailuetako dendetan deskarga daiteke. EITBk sortu arren, eragile gehiagok ere parte hartu dute. Hala, Tokikom tokiko komunikabideen elkartearen edukiak ere baditu, baita Euskadiko Filmategiaren laguntza ere. Donostiako Zinemaldian saritutako zenbait film ere eskainiko ditu. Etorkizunean **zuzenekoak**¹ eskaintzea ere aurreikusi dute.

S
o

&

U
k
i

&

K
l
i
k

Komedia politiko batekin dator Tartean Teatroa



Pío ORTIZ de PINEDO

Kortxoaren dilema izeneko antzezlanaren aurkeztuko du, azaroan, Tartean Teatroa konpainiak. Endredozko thriller politikoa da. Patxo Telleriak idatzi du, eta Mireia Gabilondok zuzendu. **Itzal handiko**² unibertsitate irakasle ezker-tiar erretiratu batek erabaki **latza**³ hartu beharko du: daukan minbizi gaiztoa tratatzeko, aberats ospetsu batek osasun sistema publikoari dohaintzan emandako erradioterapia ekipamendua erabili beharko luke. Irakasleak askotan kritikatu izan du aberatsaren jokabidea, beraz, bere printzipioak **kolokan jarriko**⁴ ditu. Erabakia hartu ondoren, ezustean, ikasle ohi bat agertuko zaio kontuak garbitzera. Halaxe hasiko da *"etikari, koherentziari, trai-zioei eta mendekuei buruzko joko teatrala"*. Telleriak berak eta Mikel Martinezek jokatuko dituzte bi protagonistak. Lana azaroaren 15ean eta 16an eskainiko dute estreina-koz, Bilboko Arriaga Antzokian. Ondoren, toki askotan ikusi ahal izango da: azaroaren 17an, Igorren; 18an, Eibarren; 19an, Erreterian; 23an, Santurtzin...



AZPEITIKO 41. Euskal Antzerki Topaketak azaroaren 2tik 23ra egingo dira eta, ohi bezala, euskarazko antzerkiaren erakusleho zabala izango dira, talde profesionalen nahiz amateurren emanaldiak eskainita eta zenbait erakusketari leku eginda. Besteak beste, Goaz antzerki taldearen *Salve, publikoa*, Artedrama eta Axut! konpainien *Hondamendia*, Eromen

Produktzioak-en *Higa*, Pez Limboren *Itsas behera* eta Kamikaz kolektiboaren *Troia* ikusi ahal izango dira. Korrika AEK beka irabazi duen *Badon** lana ere eskainiko dute, azaroaren 23an, zehazki. Emanaldietarako sarrerak antzerkitopaketak.eus webgunean eros daitezke.

1. Zuzeneko: zuzenean emititzen den ekitaldi.

2. Itzal handi: ospe, prestigio.

3. Latz: gogor, zail.

4. Kolokan jarri: poner en duda (es), mettre en doute (fr).



IRAILETIK, martxan da *Aldatu gidoia* euskararen alde! kanpaina, Eusko Jaurlaritzari kultura eta ikus-entzunezko politikak aldatu ditzala eta euskara erdigunean jar dezala eskatzeko. Horretarako, hainbat eskakizun zehatz egin dituzte, guztiak ere ikus-entzunezkoen euskarazko eskaintza zabal, erakargarri eta eguneratua lortzeko. Ho-geita hamaika eragilek abiatu zuten kanpaina (tartean, AEK), baita sinadura bilketa ere *change.org* plataforman. Gainera, 2024ko maiatzaren 18rako mobilizazioa iragarri dute.

MIHILUZE saioan etxetik parte hartzeko aukera ematen du *Mihiluze* aplikazioak. Zehazki, ETB1eko lehiaketa ezagunaren azken proba, *Bai edo bai* izenekoa, jokatu ahal da, zuzenean, egunero. Horretarako, aplikazioa deskargatu behar da App Store edo Google Play dendetan. Haren bidez, telebistako lehiakideak azken proba jokatzen ari diren unean proba bera egin daiteke, etxetik, baita saioa ikusi gabe ere. Aplikazioan lehiatzen diren artean sariak banatzen dituzte aste amaieran.



LORALDIA FESTIBALAK

zabalik du euskarazko sormen digi-taleko beka-ren bigarren deialdia. Euskarazko sorkuntza digitala sustatzea du helburu, eta 10.000 euroko ordainsaria emango du, lana 2024an garatzeko. Arlo guztietako obrak aurkez daitezke, betiere sormen digitalari lotuta: musika, arte eszenikoak, arte plastikoak, komikia... Lanak azaroaren 20ra arte aurkez daitezke. Xehetasun guztiak *loraldia.eus* web-gunean daude.



INOIZ BAINO GEHIAGO irau du aurten *Kontatzen duten emakumeak* zikloak, Panta Rhei antzerki taldeak zuzendutako Bideart Eszena Zigoitia programaren barruan egi-ten denak. Urrian hasi zen eta azaroan amaituko da emakumezkoen sorkuntza ardatz



duen zikloa, eta oraindik ere zenbait emanaldi ikusi ahal izango dira Zigoitiko hainbat herri-ritan. Esaterako, Kafuné Kolektiboaren *Nire irudia zure haragian* eta Olatz Gorrotxategi-
ren *43°13'44"N*. Informazio gehiago, www.teatropantarhei.com/bideart gunean.



IKASTARO TRINKOAK

GAINDITU AZTERKETA TEORIKOA 5 EGUNETAN

Eskaintza berezia

LGZ (CAP) ikastaroak Gipuzkoa osoan (kamioia eta autobusa)

Tel: 943 217 390



O corno

ISTORIA: 1971. urtea. Maria Galiziako Illa de Arousa herrian bizi da. **Itsaskiak**¹ biltzen lan egiten du, baina emakumei **erditzen**² laguntzeagatik da ezaguna, baita haurdunaldiak eteten laguntzeagatik ere. Ustekabeko gertakari baten ondorioz, herritik alde egin eta Portugalera ihes egin beharko du. Bidaia arriskutsu horretan, beste andre batzuen laguntza eta konplizitatea topatuko ditu.

SARIA: Galizian bizi den zuzendari donostiarrak Donostiako 71. Zinemaldiko sari nagusia, Urrezko Maskorra, irabazi du bere bigarren film luzearekin. Galegoz grabatutako film batek sari entzutetsu hori irabazi duen lehen aldia izan da. Horrenbestez, Zinemaldiari esker hasitako bideari **ginga**³ paregabea ipini dio jaialdi berean Cambordak. Izan ere, Ikusmira Berriak programaren laguntzaren bitartez hasi zen *O corno* filma garatzen. Hau da, ikus-

ZUZENDARIA: JAIONE CAMBORDA.

GIDOIA: JAIONE CAMBORDA.

AKTOREAK: JANET NOVAS, SIOBHAN FERNANDES, CARLA RIVAS, DANIELA HERNAN MARCHAN.

ESPAINIA-PORTUGAL-BELGIKA, 2023.

entzunezko proiektuak garatzen laguntzeko Zinemaldiak sortutako programarekin.

ONENA: Emakumeen zapalkuntza, abortua, ihesa, mina, heriotza, eta horren aurrean edo horrekin batera elkartasuna, **ahizpatasuna**⁴, babesa, indarra, bizitza. Andrazkoak protagonista dituen filmean, andreek beren gorputzaren jabe izateko askatasuna aldarrikatzen du modu **gordin**⁵ eta, aldi berean, sentiberan. Istorio gogorra izan arren, irudi eder ugari eskaintzen dizkio ikusleari, gaia azaletik **erraietara**⁶ dotoreziaz eta zintzotasunez barneratuta.



DockStudio

LUR KORTA
REDIN
IPUIN
KONTALARIA ETA
AKTOREA

Gustuko duzun filma? *Wonder*.

Negar egiten dut beti.

Zuzendari bat? Alba Lozano.

Askotan ikusi duzun filma? *Erin Brockovich*.

Osorik ikusi gabe utzi zenuen...

Heart of Stone.

Lagun bati ez zenioke inoiz gomendatuko... *La que se avecina* telesaila.

Gustuko duzun aktore bat?

Freema Agyeman.

Gustuko duzun telesaila?

Intimidación eta *When They See Us*.

Zinemara bakarrik ala

lagunduta? Bi eratan gustura.

Zinematik atera eta gero...

Tragoxka bat.

Krispetak, bai ala ez? Bai, dudarik gabe.

Ikusi duzun azken filma?

L'innocent.

Ikusi nahi duzuna? Pila bat,

zerrenda luzea dut.

Eta ikusi nahi duzun telesaila?

You Don't Know Me.

1. **Itsaski:** *marisco* (es), *coquillage* (fr).

2. **Erditu:** *haurra eduki*.

3. **Ginga:** *guinda* (es), *griotte* (fr).

4. **Ahizpatasun:** *sororidad* (es), *sororité* (fr).

5. **Gordin:** *gogor, latz, apaindu gabe*.

6. **Erraiak:** *entrañas* (es), *entrailles* (fr).



Gaitu!

Gauza beldurgarri asko entzuten ari gara **adimen artifizialari**¹ buruz: nola biderkatu dituen gutako bakoitzaren gaineko zaintza eta datuen **erauzketa**², nola erabiltzen ari den irudiak eta bideoak faltsutzeko, nola garatzen ari omen den gizakion sormena ordezkatzeko ahalmena...

Baina kontu oso onak ere lortzen ari da, besteak beste hauek: zentzumenean bat galdu dutenei hura berreskuratzeko aukera ematea, elkarren hizkuntza ezagutzen ez duten pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzea... Horrelakoekin lotuta, oso garrantzitsua da euskara ere adimen artifizialeko sistemetan egotea. Bestela, uste baino lehenago gertatuko zaigu ahotsa galdu duen edonor berriz hitz egiteko gai izatea... euskaldunok izan ezik. Edo etxera iritsitakoan robot txiki batek eguneko eta gure gustuko albisteen laburpena egitea... baina erdarazko hedabideetan argitaratutakoena soilik.

Edozein hizkuntzatan lan egin ahal izateko, adimen artifizialek ikasi egin behar dute: hizkuntza horretako milioika esaldi irakurri eta entzun, eta horrela soinu bakoitza nola esaten den ikasi, esaldiak nola osatzen diren... Munduko hiruzpalau hizkuntza nagusietan badaude halako testu eta audio **lagin**³ han-

diak, baina beste askotan ez hainbeste, eta, ondorioz, lubaki digital moduko bat sortzen ari da: ingelesa, gaztelania eta, beharbada, portugesa eta frantsesa nahiko aurreratuta dabilta makinek automatikoki ikasteko prozesu horietan; beste guztiek, ordea, euskarak ere bai, bide luzea dute oraindik egiteko.

Horregatik jarri dute martxan *gaitu.eus* kanpaina: milaka euskarazko esaldi grabatzea da erronka, adituek grabazio multzo horiek erabil ditzaten adimen artifizialak entrenatzeko.

Parte hartzeko bi modu daude: telefonoan edo ordenagailuan agertuko zaizkizun esaldiak irakurri eta grabatzea; edo, bestela, besteek grabatutako esaldiak entzun eta testuekin bat datozen ala ez adieraztea. Erraza, ezta?

Lerrock idazten ari naizenean, euskarazko 162.359 esaldi daude grabatuta. Animatuko gara guztion artean, ea AIZU!ren hurrengo zenbakia ateratzerako 300.000 diren?

LOTURAK

<https://gaitu.eus>

Ekimenaren webgunea.
Euskal Herriko administrazio publikoek, Euskaltzaleen Topaguneak eta Librezaletaldea bultzatzen dute.

<https://commonvoice.org>

Mundu osoan ahalik eta hizkuntza gehienetako laginak jaso eta eskuragarri jartzeko webgunea, Mozilla Fundazioak abiatua.

<https://librezale.eus>

Librezale taldea, euskara eta software libre bultzatzen dituen.

1. Adimen artifizial: *inteligencia artificial (es), intelligence artificielle (fr).*

2. Erauzketa: *extracción (es), extraction (fr).*

3. Lagin: *muestra (es), échantillon (fr).*

Egin zaitez **harpidedun**

IFK/NANA CIF/DNI..... **Izen-abizenak** Nombre y apellidos.....

Helbidea Dirección..... **Posta elektronikoa** Correo electrónico.....

Posta kodea Código postal..... **Udalerrria** Localidad.....

Herrialdea Provincia..... **Telefono zenbakia** Teléfono.....

Harpidetza..... Paperezkoa Digitala Paperezkoa+digitala **Sinadura** Firma

Ordaintzeko era Forma de pago

Banku bidez Domiciliación bancaria

IBAN _____ (24 digitu)

aizu.eus atarian
ere egin dezakezu
harpidetza

Informazioa gure fitxategian gordeko da, eta isilpekoa da. Interesdunak aldatu edo ezabatu egin dezake. Datuak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoaren arabera zaindu eta erabiliko dira. La información será guardada en nuestro fichero, y es confidencial. La persona interesada puede modificarla o suprimirla. El control y tratamiento de los datos se realizará en base a la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales.

* Kontrakorik agindu ezean, harpidetza urtero berrituko da.

En caso de no notificar lo contrario, la suscripción se renovará anualmente.

URTE OSOKO HARPIDETZA

Paperezkoa:

Hego Euskal Herria eta Espainia: **31 €**

Ipar Euskal Herria: **38 €**

Europa: **52,5 €**

Digitala: **21 €**

Paperezkoa+digitala:

Hego Euskal Herria eta Espainia: **36 €**

Ipar Euskal Herria: **43 €**

IRATIKO BOLI-DORREAN

Jedi Jatorra

by zaldiEroa

2050. urterako, Iparraldean
Euskaldunak biztanleen %17
izango direla
Ondorioztatu
dute...



Baina Baionako bestetan
ia denek jakingo dute
Txoria Txori abesten!



egia!

*Aurki dezaket
bila nabilen kalitatea
beti preziorik onenean?*

BM Marka zalantzarik gabe

BM supermerkatuetan gauzak erraztu nahi dizkizugu eta zure zalantza guztiak aurreztu. Hori dela eta, gure BM marka merkaturatu dugu, bila zabiltzan **kalitate guztia izan dezazun beti preziorik onenean.**



BM
Freskoa, gurea.

berria fm

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza
feminista**
erraietan
eta uhinetan

UXUE Rey

ANE

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
Berria.eus/podcast webgunean eta plataformetan entzungai.**